

Bergarako astekaria

Berrigara

Estu eta larri

Herriko
aparkalekuak
aztergai



**LARUNBAT
ARRATSALDEETAN
IREKITA**



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK





GUIPUZCOANA

Paketeen garraio eta banaketa

BERGARA

Tf.: 76 36 42

Faxa: 76 54 25

San Juan auzoa z/g


20570 Bergara



PAKETERIA ZERBITZU
EGUNEROKOA

- Elkarte europarrera
- +
- Suizara,
- Noruegara,
- Poloniarra eta
- Hungariara

**Mariaren
Lagundia
Ikastola**



*Lanbide Heziketa
II Sanitarioa*

**ESPEZIALITATEA
GUTXITU PSIKIKOEN HEZITZAILEA**

- Prestakizun profesionala.
Praktikak Ospital Psikiatriko eta zentru berezietan
- Unibertsitatean jarraitzeko aukera
- Lanerako irtenbideak

*Izena emateko epea:
Maiatzaren 4tik 18ra
bitartean.*

Idazkaritza orduak: 10:00-13:00 eta 14:30-17:30.

Mariaren Lagundia Ikastola, Espoloia 1. BERGARA. Tf. 943 76 25 40 / 943 76 25 41



Kili-kolo

Xabier Azkoitia / Apaiza

Egia esaten hasiz gero, telebista edo irratiauren aurrean ez dut denbora gehiegirik igarotzen, ikus-entzule baino irakurleagoa naiz. Eta saiakera horretan nenbilela eskuetara heldu zitzaidan egunkari batek astebukaeran argitaratzen duen telebista programazioari buruzko gehigarri bat.

Bertan, eta euskaraz, programa baten izenburua agertzen zen, izenburu alaia, eta aldamenen nuen lagunari galdetu nion zertaz zihoan programa. Lehiaketa bat omen da eta, bukaeran, saria irabazteko, galdera batzuk egiten omen dizkizute eta asmatu ondoren, eskuan daramazun tramankulo batekin, aukeratutako laukia ikutuz, azpian dagoen irudiaren zati bat argitzen da, bukaeran izkutuko pertsonaiaren izena asmatu egin behar omen delako.

Ariketa berdina proposatzen diot gaurkoan hau irakurriko duenari, ondoren jarritako galderei erantzuna emanez, gordean dagoena asma dezan.

1. Zenbatekoa da Euskal Autonomi Elkartearen (EAE) iruzur fiskala?
2. Iruzur fiskalaren %98 nortzuk

sortzen dute?

3. Eta %2 nortzuk sortzen dute?
4. Zenbat langabetu dago EAEan?
5. Horietatik zenbat dira gazteak?
6. Zenbat emakumezkoak?
7. Zenbat lan ordu "estraordinario" sartu dira azken urtean?
8. Iruzur fiskala kontrolatuko balitz, zenbat jasoko luke langabetu batek soldata soziala izanez gero?
9. Zenbat espetxeratu daude EAEko hiru presondegiatan?
10. Zenbat dira gazteak?
11. Zenbat daude bertan drogarekin lotuta dauden delituen ondorioz?
12. Bergizarteratzea bada helburua, ehuneko zenbatekin lortzen da?
13. Zenbat irabazi behar da txukun bizitzeko?

"Zenbat irabazi behar da txukun bizitzeko?; Ekonomikoki zenbat behartsu daude Euskal Autonomi Elkartearen?..."

14. Zenbat itxaron behar duzu langabezi saria jasotzeko?

15. Zenbat langabetuk jasotzen du langabezi saria?

16. Ekonomikoki, zenbat behartsu daude EAEan?

17. Zenbat jasoko luke hiru pertsonaz osatutako familia batek gizarte laguntzetara bideratu beharko balitz?

18. Zenbat bikotek ezin dute hartu sortean tokatu zitzairen etxebizitza, nola ordaindu ez dutelako?

19. Zenbat udalek eman dute % 0,7?

20. Zenbatekoa da gurekin Hirugarren Munduak duen zorraren kopurua?

21. Zein neurritan erabiltzen da biolentzia beste arazo batzuk isiltzeko?

22. Zenbatek eskatuko du mailegu bat jaunartze-gastuei aurre egiteko?

23...

Eginiko galderei erantzuna ematen badiezu, akaso zure kasa topatuko duzu azpian dagoen irudia. Baina esan ditanenez programa hau gaztelaniaz dagoen beste baten kopia da, eta hizkuntza horretan emango dizut erantzuna: Ven y cuentalo, Todo va bien. **B**

■ barruan




Helena Herreros

Gimnasia entrenatzailea

"Estatu mailako gimnastarik onenak Euskal Herrikoak dira"

22. orrialdean.




Ibon Unamuno

Xamatz dantza taldeko kidea

"Euskal Jaian haurrak etxean hartzeko animatu nahi ditugu herritar guztiak"

26. orrialdean.



Jose Galan

Butano banatzailea

"Lanean sasoitsu egoteko kirol piloak egiten dut: egunean hiruzpalau ordu"

29. orrialdean.

orain dela...

INGURUAN GERTATUA

1991. Apirilaren 30ean, Cesareo Gabarain, Aita Santuaren kapeilau-buru izandakoa, hil zen Arrasateko ospitalean. 1936an jaio zen Hernanin eta 60ko hamarkadan bost urte eman zituen Antzuolan parroko. Aita Santuaren musikaria ezizena eman zioten. 40 LP kaleratu zituen eta bere abestiak hizkuntza guztietara itzuli ziren.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1937. Apirilaren 26an, hegazkin alemanek Gernika bonbardeatu eta kiskali zuten.

1981. Apirilaren 26an, Realak Liga txapelketa irabazi zuen lehen aldiz. Hurrengo urtean, apirilaren 27an, bigarren aldiz irabazi zuen Liga Realak.

MUDUAN GERTATUA

1969. Apirilaren 28an De Gaullek Frantziako presidente kargutik dimititu egin zuen.

Zozketak

BONO LOTO

Eguaztena 22

1-7-10-24-36-37 (osag.35/er.2)

Eguakitzita 24

5-20-24-26-30-36 (osag.29/er.0)

Astelehena 27

5-7-10-21-27-47 (osag.48/er.7)

Martitzena 28

19-20-23-29-39-41 (osag.17/er.9)

PRIMITIVA

Zapatua 25

25-31-32-36-38-39 (osag.6/er.0)

Domeka 26 Gordoak

10-17-18-34-37-49 (osag.6/er.3)

ONCE

Eguaztena 23: 50.564

Eguakitzita 24: 75.672 (K. seriea: 114)

Astelehena 27: 06.584

Martitzena 28: 44.888

BESTE BATZUK

Bedelkar, harakinak: 6.584

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Astean zehar egin duen eguraldiaren antzekoa izango dugu astebukaeran, eguraldi nahasia beraz. Eguakitzita izango da txarrena: euri zaparradak eta iparreko haize hotza. Zapatuan eta domekan zerbait argituko du.

Ilargiaren aldiak



Ilberri: apirilak 26



Ilgora: maiatzak 3



Ilbete: maiatzak 11



Ilbehera: maiatzak 19

Eguzkia

Domeka, apirilak 3



Sortu: 06:13



Gorde: 20:14

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 23	16	10	-
Eguakitzita 24	20	12	-
Zapatua 25	28	7	5,7
Domeka 26	12	11	13,3
Astelehena 27	14	5	2,4
Martitzena 28	19	7	16

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Apea (Apeia)

Pinu, eukalitu... arbolen eñbor mehe samarrak, motz ebakirik papelgintzarako saltzen direnak.

- Bizimodua gora ta apeian prezia behera.

- Apea pillia jausi jako kamioia tranguan.



JOSU OKINA

hamaika ikusteko jaio ginen!

Robotek kontrolatutako zinea

Kanadako Montreal hiria izan da robotek kontrolatutako zinearetoak jarri dituen lehena. Zine-roboteka batean kokatutako beso mekaniko batek gestionatzen ditu ia 9.000 pelikula *laser-disc*ean. Dena dela, oraingoz, McGill eta Quebecoko unibertsitateen eta Interneten bitartez baino ezin daitezke ikusi pelikulak, fibra optikoen instalakuntza bati esker.

Farmaziak

Eguena 30:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 76 19 63
Gauetz: ESPAÑOL, Arrasate. 79 14 88

Eguakitzita 1:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 76 12 15

Zapatua 2:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 76 11 74

Domeka 3:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 76 11 74

Astelehena 4:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 76 16 87

Martitzena 5:

GUALLAR. S. Antonio 5. Tf. 76 11 05

Eguaztena 6:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 76 19 63

Eguena 7:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 76 12 15

Ogia

Eguakitzita 1: Konde.

Domeka 3: Mizpildi.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	
DYA	78 71 57
Gurutze Gorria	76 55 31
Larrialdiak	76 12 38
Anbulatorioa (txanda)	76 24 44
Anbulantzia	55 48 10
Udaltzaingoa	77 91 18
Ertzaintza	76 53 44
Suhiltzaileak	78 28 10
Osasun Etxea	76 24 44
Arrasateko ospitala	79 53 10
Asepeyo	76 18 40
Pakea	76 13 40
Angiozarko medikua	78 90 10
Antzuolako medikua	76 62 10

GARRAIOAK

Euskotren	45 01 10
PESA	902 10 12 10
Taxiak	76 18 50
RENFE	28 35 50

UDALA

Udaletxea	77 91 10
Udal Artxiboa	77 91 10
Igerilekuak	76 20 10
Kultur Etxea	77 91 10
Liburutegia	77 91 10
Mizpirualde Egoitza	76 18 50

BESTELAKOAK

Epaitegia	76 14 10
Erregistroa	76 13 10
Jardun	76 38 10
Jubilatuena Etxea	76 21 10
Postetxea	76 20 10

zorion agurrak



Oihana Zangitu
Maiatzaren 1ean
22 urte. Zorionak
eta muxu bat!
Gurasoak eta anaia.



Saioa Etxebarri
Apirilaren 22an
14 urte. Zorionak
koadrilakoen partez!



Asier Kortabarria
Maiatzaren 4an
6 urte. Zorionak
Aitor eta
famiiliakoen partez!



Isabel Aranburu
Maiatzaren 1ean
urtebetetzea.
Zorionak! Asier, Ai-
tor eta famiiliakoak.



Elena Bakaikoa
Maiatzaren 3an
20 urte. Zorionak
koadrilakoen partez!



Olatz Etxebarria
Apirilaren 30ean
7 urte. Zorionak
famiiliakoen partez!



Lorea Larrañaga
Maiatzaren 1ean
6 urte. Zorionak
etxekeoen partez!



Gorka Igartua
Apirilaren 23an
urtebetetzea.
Zorionak etxekeoen
partez!



Ane Sancho
Apirilaren 27an
2 urte. Zorionak
etxekeoen partez!



Manex Larrañaga
Maiatzaren 3an
3 urte. Zorionak
etxekeoen partez!



Maite De Pedro
Apirilaren 26an
2 urte. Zorionak
famiiliakoen partez!



Iñigo Iparragirre
Maiatzaren 14an
5 urte. Zorionak
etxekeoen eta
famiiliakoen partez!



Aitziber Azagirre
Apirilaren 19an
9 urte. Zorionak!
Gurasoak, anaia eta
aitona-amonak.



Nerea Madariaga
Maiatzaren 3an
jaunartzea. Zorionak!
Gurasoak, ahiz-
pa eta famiiliakoak.



Salvador Osuna
Apirilaren 28an
urtebetetzea.
Zorionak etxekeoen
partez!



Mikel Uribesalgo
Maiatzaren 3an
urtebetetzea.
Zorionak lagunen
partez!



Iñigo Larrañaga
Maiatzaren 2an
2 urte. Zorionak
famiiliakoen partez!



Jon Ruiz de Egin
Apirilaren 28an
11 urte. Zorionak
famiiliakoen partez!



Mikel Gallastegi
Maiatzaren 4an
12 urte. Zorionak
etxekeoen partez!



Maria Luisa Ieregi
Apirilaren 30ean
66 urte. Zorionak
amama famiiliakoen
partez!



Ane Aguila
Apirilaren 29an
urtebetetzea.
Zorionak
famiiliakoen partez!



Angel Barquero
Apirilaren 28an
25 urte. Zorionak
etxekeoen eta
Silviaren partez!



Iker Moyano
Apirilaren 29an
3 urte. Zorionak
famiiliakoen eta
lagunen partez!



Juani Ilarduia
Maiatzaren 6an
67 urte. Zorionak!
Maitasunez, Erik,
Amaia, Jon Mikel.



Karlos Ugalde
Maiatzaren 1ean
urtebetetzea.
Zorionak
lagunen partez!



Kristina Fernandez
Maiatzaren 2ean
urtebetetzea. Zorionak
lagunen partez!



Elene Etxaniz
Apirilaren 29an
5 urte. Zorionak
Belen, Irati eta
Pelloren partez!



Soiartzte Heras
Maiatzaren 6an
12 urte. Zorionak
famiiliakoen partez!



Jabi Pizarro
Apirilaren 30ean
17 urte. Zorionak
emaztea eta
lagunen partez!



Iñaki Arenaza
Maiatzaren 1ean
20 urte. Ja, ja, ja!
Zorionak!
Xamatzekoak.



Jon Macias
Apirilaren 28an
2 urte. Zorionak!
Amama Arantxa eta
Anita eta familia.



Andoni Narbaez
Maiatzaren 4an
5 urte. Zorionak
famiiliakoen partez!



Natalia Murillo
Apirilaren 29an
27 urte. Zorionak
famiiliakoen eta
Patriziaren partez!



Leire Mira
Apirilaren 29an
15 urte. Zorionak
famiiliakoen partez!



Estitxu Lobato
Maiatzaren 6an
14 urte. Zorionak
famiiliakoen eta
lagunen partez!



Libe Txintxurreta
Apirilaren 21ean
29 urte. Zorionak
etxekeoen partez!



Jon Suinaga
Apirilaren 28an
urtebetetzea.
Zorionak lagunen
partez!



Iosu Aranburu
2an 5 urte.
Zorionak! Familia,
Amama Benita,
Xabier eta Ainhoa.



Amaia De Zerio
Maiatzaren 3an
24 urte. Zorionak
koadrilakoen partez!



Naiara Tabuenka
Maiatzaren 2an
21 urte. Zorionak
etxekeoen eta
lagunen partez!

hildakoak

BERGARA

María Rosario Belio Frances

Apirilak 23, 80 urte.

• Antzuolako udalean ez da hildakoan berririk jaso.

• Jaiotakoan berririk ere ez da jaso, ez Bergaran eta ez Antzuolan.

mezak

Santa Marina

Domekak:
11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.

San Pedro

Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta
lanegunak: 19:00.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:00.
Domekak: 10:30.

Ubera

Domekak: 10:30.
Domekak: 11:00.

San Juan

Domekak: 11:00.
Domekak: 13:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.
Domekak: 11:00.

Labegaraieta

Domeka: 11:00.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30etan.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30etan.

San Lorentzo

Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 10:30.
Eguakitza: 19:00.

Monja Zaharrak

Domekak: 19:30.

Zapatuak eta
lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Domekak: 11:45.

Zapatuak eta
lanegunak: 11:45.

Mariaren

Zapatuak eta
lanegunak: 11:45.

Lagundia

Domekak: 10:00.

Zapatuak eta
lanegunak: 09:00.

Antzuola

Domekak:
09:00, 11:30.

Zapatuak eta
lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domeka: 10:00.

ANTZERKIA

► **Los Ulen** taldearen "Mana, mana" antzezlanaren 8an 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan.

MUSIKA

► **Doctor Deseo** eta **Latzen** taldeak gaur, eguena, 22:30etan Oñatiko Zubikoa kiroldegian.

► **Rogelio Botanz** eguakitzean 23:30etan Soraluzeko Gaztelupe tabernan.

► **Eskizofrenia rock, Hot dogs** eta **Kaos etiliko** taldeak bihar eguakitzan 23:30etan Oñatiko Olabarrieta auzoan.

► **Albert Plá**, datorren eguakitzean, hilak 8, Jam aretoan.

ERAKUSKETAK

► **Mikel Diez** eta **Estefania Erroren** oroimezko txotxongilo erakusketa domekara arte Kultur Etxean.

► **Ricardo Azkargortaren** margoak ikusgai Eibarko Portalea aretoan, martitzenera arte.

► **Pello Alberdiren** margo erakusketa Bilboko Berta Belaza galerian maiatzaren 12ra arte.

KONTZERTUA

Platero y tu

Noiz: gaur, eguena, 22:30etan
Non: Jam aretoan
Sarrera: 1.600 PTA (aurrez), 1.800 takilan

Platero y tu bilbotar taldeak "7" izenburuko bere azken diskoa aurkeztuko du gaur gauean Bergaran. "A pelo" euren zuzeneko diskoaren arrakastaren ondoren, estudioan grabatzera itzuli zen taldea eta urrian kaleratu zenetik, "7" (ateratzen duten zazpigarren lana hain zuzen ere) diskoak harrera ezin hobea izan du publiko zein kritikaren aldetik. "A pelo" urrezko diskoa izatera iritsi bazen, azken lan honek ere bide berdintsua darma. Gaur, Adolfo Cabrales "Fito" (kitarra eta ahotsa), Iñaki Anton (kitarra), Juntxu Olano (baxua) eta Jesus Garcia (bateria) Amilagan izango ditugu, beren azken abestiak eskaini eta taldea sortu zenetik arrakasta gehien izan duten abestiei ere errepasso emateko asmoz. Azaro aldera Estatu osoan zehar egingo duten jirari hasiera

eman zioten eta inguruan dituzten jarraitzaileek euren musikarekin gozatzeko aukera izango dute gaur. Kontzertuak ikusmina piztu du eta, ziurrenik, sarrera onartu izango da gaur Jamen.

Dagoeneko taldeak 8 urte bete ditu eta, musika adituen arabera, "7" diskoa biltzen diren abestiekin taldea bere jatorrira itzuli da. Rock abesti gogorak ("Por mi", "Mendrugos" edota "Si miro a las nubes") balada goxoekin ("Al cantar" arrakastatsua, esate baterako) tartekatzen dira. Zuzeneko emanaldietan publikoarekin kontaktu zuzena maite du taldeak eta gaurkoan ere guztia emateko prest izango dira eskenatokian. B



Platero y tu bilbotarrak Jamen izango ditugu gaur gauean.

LEHIAKETAK

► **Kirol Argazkien VIII. Lehiaketa.** Lanak ekainaren 16ra arte jasoko dira Udal Kirol Zerbitzuan. Argibideak bertan, 77 91 67 telefonoan.

► **Bilboko Aste Nagusiko kartel lehiaketa.** Kolorea eta teknika, aukeran. Egile bakoitzak bi lan aurkez ditzake gehienez. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 8an bukatuko da. Argibideak 94- 424 29 84 telefonoan.

DEIAK

► **Jubilatuentzako bidaiak** Lisboako "Expo 98" bisitatzerako. Maiatzaren 28an irailaren 27ra bitartean hainbat txanda izango dira. Irteerak (abioiez) domekara

ZUBIETA

elektragarintza

MOTORREN BOBINAKETA,
ERA GUZTITAKO
INSTALAKUNTZAK.

Kruz Gallastegi 2 behea
☎ 76 23 48

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale 6 Tf.: 76 13 29

Siaska

Dena zure
haurrarentzako

San Pedro 10 Tf. 76 10 39

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra
poliuretanoa... Leihoak,
ateak, manparak...

Eska ezazu
aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa: Masterreka 14 behea
BERGARA
Tf.: 76 55 02 Faxe: 77 11 30

tan; itzulerak eguenetan. Argibideak Marsans bidaiera: 45 65 93 eta 42 38 38.

► **Jose Mari Etxanizen** aldeko plataformaren bileta, astelehenean 20:00etan Pol-Poleko areto nagusian. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

► **Gaztebideo**, gazteen argumentudun bideo ama-teurraren VI. erakustaldia Gasteizen. Filmeak (hiru kopia VHS sisteman) aurkezteko epea 1998ko maiatzaren 15ean bukatzen da. Argibideak (945) 28 61 42 telefonoan.

► **Rolling Stones** taldea ekainaren 18an San Mamesen ikusteko irteera antolatuta du Jam-ek. Argibideak: 76 35 81.

► **Xipizaro ludotekak** antolatutako udalekuetan parte hartu nahi duten haurrentzat izena emateko epea maiatzaren 4tik 16ra bitartean izango da zabalik. 76 23 76.

► **Jubilatuen** mendi irteera eguaztenean. Deskarga-Arola-Bergara. Irteera 8:00etan Bus Geltokitik.

JAIK

► **Labegaraietako jaiak.** Eguakitzean 10:00etan etxalero jaurtiketa, ondoren diana Udaltxistulari Bandarekin eta 11:00etan

Meza Nagusia. Jubilatuen abesbatzaren emanaldia jarraian eta 12:00etan bertsolariak eta dantzariak. Txorizoa eta salda banatuko dira. Arratsaldean, 16:00etan II. Plater tiraketa. Zapatuan, 11:00etan marrazki lehiaketa, 16:00etan mus txapelketa, 16:30etan txirindulari lasterketa, 17:00etan kukañak eta buruhaundiak, ondoren txokolatada eta 22:00etan auzo afaria Zabalán Iosu eta Iokin trikitilariekin. Goizeko 3:00etan kulero eta kaltzontzilo lasterketa.

► **Irukurutzetako erromeria** domekan. 11:00etan meza Pagobedeinkatuan, ondoren Bitoriano Gandiagak inguruko tumulo eta trikuharriei buruzko azalpena emango du, 12:00etan salda, txorizoa eta ardoa banatuko dira, 13:30etan Irukurutzetara igoera eta 14:00etan bazkaria. Jarraian Jo ta su trikitilariekin erromeria.

KINTADAK

► **1942an** jaiotakoen afaria hilaren 9an Azpeitxi jaietxean. Izen-ematea domeka baino lehen Mizpildin, Edel tapizdendan edo Lonbide zapatadendan.

► **1963an** jaiotakoen bazkaria hilaren 16an Antxonin. Izen-ematea Ariznoa eta Kortazar tabernetan.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Mejor... imposible

Eguena: 22:30.
Eguakitz: 17:00, 19:30, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Inocencia rebelde

Eguena, hilak 7, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Desmontando a Harry

Eguena: 22:00
Eguakitz: 17:00, 19:30, 22:00.

Esfera

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena: 19:00, 21:00.

EIBAR. Unzaga

Tres hermanos muy primos

Eguena: 22:15.
Eguakitz: 17:00, 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Medianoche en el jardin del bien y del mal

Eguena: 22:15.
Eguakitz: 17:00, 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

OÑATI. Santana

El indomable Will Hunting

Eguakitz: 19:30, 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

ELORRIO. Arriola

La mirada de Ulises

Eguakitz: 20:00.
El indomable Will Hunting
Zapatua: 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:00.

The pillow book

Eguena, hilak 7, zine-kluba: 20:15.

MEJOR... IMPOSIBLE

Zuzendaria: James L. Brooks.

Aktoreak: Jack Nicholson, Helen Hunt, Greg Kinnear, Cuba Gooding Jr.

Melvin nobela erromantikoak idazten dituen idazle garrantza dugu eta jendea iraintzeko duen abilezia harro dago bera. Egoera honetan goizero bere komentarioak entzuteko prest dagoen bakarra Carol izeneko kamarera da. Melvinen ondoan bizi den Simon artistak ere haren maniak jasan beharko ditu...

INOCENCIA REBELDE

Zuzendaria: John Duigan.

Aktoreak: Sam Rockwell, Christopher McDonald, Kathleen Quinlan, Mischa Barton.


Louisville hirian lorazain lanpostua dauka Trent-ek baina nahiko bizimodu bakartia dauka. Bere etxe ingurura Devon izeneko neskatxa hurbilduko da; bere sekretuak eta haurtzaroko ipuinak konpartitzea gustoko du eta ilusio handia egiten dio Devon bere etxe inguruko lorategietan lanera joaten denean. Baina Devon zirikatzen izaten direnak ere badira...



BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Jai zoriontsuak opa dizkie bere lagun eta bezeroei

JAUNARTZEAK, EZKONTZAK, DESPEDIDAK, KARTA, EGUNEKO MENUA, LOGELAK.



ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta BERGARA.
Telefonoak 76 20 07 - 76 42 57

Gipuzkoako 700 bat odol emale elkartu ziren domekan Bergaran

Gipuzkoako odol emaleek batzar orokorra egin zuten

Herrialde osoko 720 bat odol emale elkartu ziren joan zen domekan Bergaran. Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarteak batzar orokorra egin zuen gure herrian eta 25 eta 50 odol ateraldi egin dituztenei opariak banatu zitzaizkien.

Santa Marinaran egin zuten batzarra, meza entzun ostean. Jose Manuel Cardenasek, Gipuzkoako odol bankuko arduradunak, iaz egindakoaren balantzea egin zuen. Bestalde, herrialdeko 22 odol emaleri marmolezko irudi bana eman zitzaizen 50 odol ateraldi egiteagatik eta beste 237 lagunek zilarrezko domina eta diploma bana jaso zituzten 25 odol ateraldi egiteagatik. Bergarako 26 emalek zilarrezko domina eta diploma bana jaso zuten (batzuek iaz jaso behar zuten).

Batzarraren ostean, Udal Musika Bandaren kontzertua ikustera abiatu ziren bildutakoak Udal Pilotalekura. Halere, ezin izan zuten kontzertu osoa entzun, eguerdiko 12:30etan hasi zelako eta batzarra ordu batean amaitu zelako. Kontzertuaren ondoren, 700dik gora lagun elkartu ziren mahaiaren inguruan kiroldegian. Bertan, Victoriano Gallastegi alkatea eta Alvaro Esparza Gizarte Ongizateko zinegotzia izan ziren, Bergara eta Gipuzkoako odol emaleen elkartearen buruekin eta Biz-



Joan zen domekan saritutako Bergarako odol emaleak.

JUAN ANTONIO ME...

kaia eta Nafarroako elkarte-etako ordezkariekin batera. Bazkalostean dantzaldia izan zen.

Odol ateraldiak: urte ona

1997an zehar 32.159 ateraldi egin ziren Gipuzkoan, aurreko urtean baino %8 gehiago. Bestalde, 2.899 lagunek eman zuten odola iaz lehen aldiz. Esan behar da Gipuzkoa buruan dagoela odol ateraldiei dagokienean: 51 emale daude mila biztanleko, Euskal Autonomi Elkartearen 43 dira; Espainian 35 eta European 41.

Bestalde, Fernando Idigorasek, herriko odol emaleen elkartearen arduradunak, eman dizkigun datuen arabera, iaz 1.166 lagunek eman zuten odola Bergaran; horietatik 118 lagun, odola ateratzera lehen aldiz joan ziren. Guztira, 1.404 odol ateraldi egin ziren iaz.

Urtean odola behin eman zutenak 766 izan ziren (405 gizakume eta 361 emakume); birritan eman zutenak, ostera, 234 izan ziren (132 gizakume eta 102 emakume) eta hiru bider eman zutenak 50 lagun (34 gizakume eta 16 emakume).

Lau aldiz 5 gizakume eman zuten odola (emaleek gehienez hiru bider eman dezakete urtean).

Adinaren arabera, 38 eta 42 urte artean daudenak dira odol ateraldi gehien egin zituztenak. Gutxien animatzen zirenak, berriz, 18 eta 22 urte arteko gazteak dira. Herrialdela eta, herriko odol emaleek 18 eta 33 urte artean sentsibilizatu eta animatu nahi dituzte odol ateraldietan parte har dezaten.

Odol taldeen arabera, honela banatzen dira Bergarako odol emaleak: A- (374), A- (103), O+ (42), O- (167), B+ (53), B- (10), AB+ (17) eta AB- (7). Gipuzkoako osoa hartuz gero, taldeen arteko proportzio antzerkako da. B

50 eta 25 odol ateraldi egin dituztenei omenaldia egin zitzaizen Santa Marinaran

BERGARA

Salou 98

Maiatzaren 29tik ekainaren 2ra

Hotel Los Angeles ***	18.800 PTA
Hotel Belvedere ***	19.500 PTA
Hotel Jaime I ***	19.700 PTA
Hotel Olympus Palace ***	20.875 PTA
Hotel Europa Park ***	22.000 PTA
Aparthotel Michelangelo ***	23.100 PTA
Hotel Salou Park ***	23.800 PTA


Luxuzko autopulmana eta pentsio osoa prezioan sartuta daude.

Kontsulta itzazu beste hotel batzuetako egonaldien prezioak eta...

Umeentzako eta hirugarren eta laugarren lagunentzako deskontuak!

Informazioa eta erreserbak Ecuador Bidaiak-en.

Tf. 943 76 44 45 - 943 76 15 33
Arruriaga 10, BERGARA



Kalea zabaldu eta horma zahar batzuk bota egingo dira Angiozarko Beheko kalean.

Angiozarko Beheko kalea konpontzeko obrak hastear

Lanak ekainean bukatuta egotea espero da

Angiozarko Beheko kalea zabaldu eta urbanizatzeko lehen fasea Construcciones Ozio S.L. enpresari adjudikatu zaio 13.133.068 pezetan. Lehen fase honetan horma zahar batzuk bota eta berriak egingo dira eta kalea zabaldu egingo da. Lanak hamabost egun barru hastea espero da eta obrak hasteko akta sinatzen denetik hasita 25 eguneko epea izango dituzte lanak egiteko.

Behin lan horiek egin eta gero, duela hiru urte erretako etxea bota, etxe berria egin eta kalean argi eta estolderia berriak jarriko dira. Ondoren, zorua konponduko da.

Bestalde, Angiozarko frontoia konpontzeko lanetan hasiak dira dagoeneko. Pilotalekua estali egingo da -egurrezko egituradun teilatua egingo da- eta aldagelak eta harmailak eraikiko dira. Aldagelak frontisaren eta

eskolen artean egingo dira eta harmailak, berriz, frontoi aldera eta eskola aldera egingo dira, frontoiaren eskuma aldean.

Obren aurrekontua 52 milioi pezetakoa da eta Berrri enpresak egiten dihardu lanok. Aurtengo San Migel jaietarako frontoi berria prest egotea espero da.

Esan dezagun, azkenik, San Migel kaleko 1 eta 5 etxeak aste honetan botatzen jardun dutela. B

Eibar-Gasteiz: Arlabanen bi karril bakarrik egiteko aukera aztertzen ari dira

Eibar eta Gasteiz lotuko dituen A-1 autopistaren, Arlabanen, bi karrileko errepidea egiteko aukera aztertzen ari dira Gipuzkoa eta Arabako Diputazioak.

Helburua, autopistaren kostua (100.000 milioi pezeta) murriztea da eta, horretarako, Arlabango tunelean norabide bakoitzeko karril bakarra egitea aztertu dute. Autopistaren zati horretan, hasiera batean, bi karril bakarrik eraikiko balira ere, bost edo hamar urteren buruan beste biak egingo lirateke.

Arabako Diputazioak egindako azterketen arabera, gaur egun Arlabanetik 7.400 ibilgailu pasatzen dira egunean eta, Armiñondik, berriz, 30.000. Arlabanen bi karril egingo balira eta autopista Etxabarri-Forondaraino egin beharrean Urbinaraino egingo balitz, kostua 85.000 milioi pezetaraino murriztuko litzateke.

Eibar-Gasteiz autopistaren obrak Bergaran hasiko dira aurtengo udazkenean. B

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



OZAETA JAUREGIA
Tf.: 76 10 55 Faxa: 76 20 29



LASA
Jatetxea

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuek
sintasola - moketak - gotelak
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 76 62 02 eta 908 77 64 91 (mobi)

Maiatzaren Lehena: 35 orduko lanastearen alde sindikatuak

ELA eta LABek Bilbon egingo dute manifestazioa

35 orduko lanastea eta langabeziaren murrizketa izango dira aurtengo Maiatzaren Lehenean sindikatuen aldarrikapen nagusiak. Euskal Autonomi Elkarteak, ELA eta LABek Bilbon eta UGT eta CC.OOk Donostian ospatuko dute langileen eguna.

Aurten ez da manifestaziorik antolatuko bailaran. ELA, LAB, ESK-CUIS, STEE-EILAS, EHNE, Hiru eta Ezker Sindikalak Bilbon egingo dute manifestazioa. Hego Euskal Herrian 35 orduko lanastearen aldeko kanpainan murgilduta dauden sindikatu hauek, Maiatzaren Lehena ere elkarrekin ospatuko dute Bilbon.

Eguerdiko 11:00etarako manifestazioa iragarri dute Bilboko Jesusen Bihotzaren plazatik irtean. Manifestazioaren lema nagusia "Inor ez lanik gabe" izango da eta udaletxe aurrean amaituko da ekitalditxo batekin. Manifestazioaren ondoren, ELAk, azken urteetan egin duen moduan, bazkaria egingo du Erakusketa Azokan eta, ondoren, dantzaldia izango da, bertan sindi-

katu guztiak elkartuko direlarik. Bilborako autobusak jarri ditu ELAk; beste sindikatuek ez dute autobusik antolatu.

CC.OO eta UGT hiriburu guztietan

Bestalde, UGT eta CCO-Ok, hiriburu guztietan antolatuko dituzte manifestazioak Maiatzaren Lehenean. Bilbon, 11:30etan, Jesusen Bihotzaren plazan, Gasteizen, 12:00etan, Ama Zuria-

ren plazan eta Donostian, 11:30etan, Alderdi Ederren, iragarri dituzte manifestazioak. 35 orduko lanastea, langabezia, lan prekarietatea, langileen parte hartzea eta berrindustrializazioa izango dira UGT eta CC.OO sindikatuen aldarrikapen nagusiak.

Bergarako UGTk autobusak jarriko ditu euren afiliatuentzat eta Deba Garaia eta Goierrri eskualdeetako UGTkoek bazkaria eta jaiak izango dute Arrasaten. B



35 orduko lanastea, aurtengo Maiatzaren Leheneko aldarrikapen nagusia.

Kirol materialak euskaraz sortzeko bekak eman dira

Deba Bailarako

Euskara eta Kirol Zerbitzuek kirol materialak euskaraz sortzeko bekak esleipena jakitera eman dute. Aurten bi beka kaleratu dituzte: alde batetik, kirol alternatiboetako beka eta, bestetik, tenisekoa. Lehenengo Arrasateko Zigor Gartzia eman zaio eta tenisekoa, ostera, Jorge Aranes bergararrari.

Kirol materialak euskaraz sortzeko konbokatutako den zortzigarren edizioa izan da aurtengoa. Orain arte beroketa, eskubaloia, saskibaloia, rugbia, atletismoa eta futbolari buruzko fitxak kaleratu dira eta aurki, igeriketa, judoa eta karateari buruzkoak plazaratuko dira, iazko beketa. Inaki Ugarteburu Udaltzako Kirol Zerbitzuko teknikariak esan digunez, "kaleratu ditugun kirol fitxak oso harrera ona izan dute eta jende askok erabiltzen ditu; horregatik etorkizunean fitxa gehiago kaleratuko ditugu".

Zigor Gartzia eta Jorge Aranesek 300.000 pezeta eta bost hilabete epea izango dute euren lana egiteko. B

Kizkur
 Ilcapaindegia
 Solariuma
 Bolu 51. Tf. 76 50 32

BERGARA
MARMOLERIA
 PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimakerak
 Urarte 8 BERGARA
 ☎ 76 11 99 / 76 14 47. Faxa: 76 04 77

ETXAGI
JATETXEA
 AFARIAK, BATAIOAK,
 JAUNARTZEAK,
 EGUNEROKO MENUA,
 GOSARIAK,
 BAZKARIAK...
Masterreka 8 ☎ 76 53 12

ZUBIAURRE
aroztegia
 • Aulki eta mahaien erakusketa eta salmenta.
 • Sarrerarako eta barrurako atak.
 • Neurria egindako horma-armairuak.
 • Tarima eta parketak.
 • Zurezko leihoak.
 • Era guztietako arotz-lanak.
 Zubiaurre 2, Bergara. Tf. 76 15 14 / 35 73

Berrigara

321 zenbakia.
1998ko apirilaren 30a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 76 03 97. Faxa: 76 29 77
E-mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Kristina Romero.
Harpidetza: Gorka Elortza. **Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberebizbar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate. **Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo. **Banaketa:** Txantxangorri taldea. **Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azaleko argazkia:
Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Begarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jauriritzako
Kultura saila

gutunak

Iritzi, protesta edo desioren bat adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).

FRESKAGARRIEN MAKINA KULTUR ETXEAN!

Ikasle talde bat gara eta ia arratsaldero Kultur Etxera joaten gara ikasi eta aldi beretan lagunekin egoteko. Liburutegian hainbat denbora eman ondoren, kanpora irten eta Kultur Etxe ondoko bankuetan jartzeko ohitura daukagu.

Batzuetan ogitartekoak tartean izaten direla, faltan botatzen dugu errefresko makina bat Kultur Etxean. Orain denbora dexte kafe makina jarri zen moduan, errefresko makina bat jartzeko eskatu nahi genioke Udalari.

Ez dugu uste diru asko balioko duenik horrelako makina bat jartzeak eta leku nahikoa dago Kultur Etxeko sarrera horretan. Ingurukoekin berba egin ondoren, beraiek ere gustora erabiliko luketela esan digute. Askotan taberna gertuenera edo supermerkatu batera joan behar izaten dugu edariak erostera.

Beraz, lerro hauetatik aipatutako eskaera luzatu nahi diogu Udalari edo ardura duenari: errefresko makina jartzea azter dezala.

Jokin Alberdi

TXOTXONGILOEN JAIALDI MUNDIALA

Joan den asteburuan zehar Bergaran izandako Txotxongiloen Nazioarteko Mostrako antolatzaileei zorionak eman nahi dizkiet antolaketa -nik dakidala behintzat- zuzena izan zelako eta emanaldi gehienek kalitatea benetan ona.

La Fanfarrak eskaintako "Constantina, escuchame con los ojos", La Cónica-ren "Ombres d'eobjectes trobats" eta Green Ginger-en "Slaphead" eskertzeko modukoak izan ziren. Ea hemendik bi urtera ere maila horretako lanekin gozaten dugun!

Iñaki Iturbe

FUTBITO TXAPELKETAKO GORA-BEHERAK

Labegarrietako Futbol Txapelketako Antolaketa Batzordekoek nolabaiteko autoritatea dute, baina horrek ez du esan nahi autoritate horretaz abusatu dezaketetik. Eta hau da Azpeitxi Jatetxea taldeko Fernando Agirrebeñarekin gertatutakoa, gelditzen den denboraldi osorako inongo aruzoirik gabe kaleratu baitute.

Azpeitxi taldea


MARIA EUGENIA GRACIAREN EBAKUNTZA

Begarako Amnistiaren Aldeko Komiteak eskertu eman nahi dizkie Maria Eugenia Graciak ahoko ebakuntza egin ahal izateko diru laguntza eman duten guztiei. Ebakuntza aurrera doa, herritarrei esker.


Amnistiaren Aldeko
Komitea

tira biraka: bittor rodriguez

LENGO EGUNIAN
TELEBISTAN BALLET
SAIO BAT IKUSI NEBAN...



DANTZARI GUZTIAK HANKA
PUNTETAN LUZE-LUZE
IBILTZEN ZIRELA ETA
ZERA BURURATU JATEN...



EZ ZAN HOBETO IZANGO
DANTZARI ALTUAGOAK
KONTRATATZIA...??



■ atrebentzia ezpada

Maiatzaren 1eko langileen eguna dela eta, zer deritzozu lan astea 35 ordura murrizteari?



Aitor Ortiz

Ondo, ez zait gaizki iruditzen. Lan banaketa hobea lortzen bada, ados nago neurri horrekin. Ez naiz adi-tua baina, printzipioz, ondo ikusten dut.



Mari Karmen Boyer

Lanik ez dutenen onerako baldin bada, behintzat, ondo iruditzen zait. Esaten dutenez, lanpostu gehiago sortuko lirateke eta horren faltan gaude.



Joaquin Molinero

Ez dut kontu hori garbi ikusten, gauza asko zehazteke daude, kontratu berrien izaera etabar. Lanpostuak sortzeko beste neurri batzuk aztertu behar dira.



Juli Frasier

Primeran. Lanik ez duten-tzatzat lanpostuak sortzen badira, beharrezkoa da lan murrizketa. Aseguratu gabeko lanekin ere neurriak hartu beharko lirateke.



Vicente Beistegi

Ondo ikusten dut, baina praktikara eramaten zaila. Hori martxan jartzen bada, jorjala txikiagoa, produktioa jaitsi egingo delako. Eta hori ere ez da komeni...



Ana Testa

Oso ondo, lan banaketa hobea lortzeko komenigarria da. Langabeziaren arazoa konpontzeko eta denbora libre gehiago izateko proposamen ona da.

■ bai, esan!



Gertaera edo ekintzaren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zük esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

Jardun Elkarteak atebukaeretan Gartzela Zaharrean gatzetxoendako antolatzen dituen jardueretan aritzen diren 11-12 urteko lau neskatila etorri dira BERRIGARAKO erredakziora. Lau neskatilok diotenez, urez betetako globoak jaurtitzen dizkiete Irazabal kaletik mutik kuadrila batek. Bestalde, Gartzelako atea zabalik dagoenean, bertara ere botatzen ei dituzte puzgarriak. Neskatilek, bakean lagatzeko esan ei diete mutilei behin baino gehiagotan, baita Jarduneko begiraleek ere; baina hauek ez ei diete kasorik egiten. Horregatik plazaratu nahi izan dute euren kexa, ea horrela bakean lagatzen dituzten.

■ ikuspuntua: **felipe iñarra**

Zergatik ez?

Matias Mugika itzultzaileak euskal kultura kritikatzat idazki bat plazaratu zuen *Ostiela!* aldizkarian Gabon aurrean. Bertan, euskal gizartearen kritika gogorra egiten da eta zenbait hauts astintzeko balio izan du. Gauza asko aipatzen ditu eta guztiak ere gogorrak, baina euskal lanen maila eskasaz diharduenekoa egin zait deigarriena. Ez dakit egia ote den, baina... Artikuluari erantzunak ugariak izan dira.

Bestalde, Jon Sarasuak *Galtzaundi* Forumean txosten interesgarria azaldu zuen, baina atal batean hainbat euskal idazle kritikatu zituen, Euskal Herriarekiko "konpromisurik" hartzen ez



Ibon Sarasolak, *Euskara batuaren ajeak* izenpean, euskara batuaren "iraultza" proposatzen du, Iparralde eta Hegoalde gero eta urrunago daudela argudiatuz. Hiztegi itxura du liburuak, beronen proposamenak bertan jasoz. Sarasolak ere bide bera hartzen du, txarto dagoena salatu. Baina honek, gabezia hau konpontzeko irtenbideak ematen ditu. Ez da gutxi.

dutela esanez; modernokerian dituztela begiak eta ezer berririk sortzen ez dutela leporatuz. Bera ere gauza da horren gai modernoer berba egiteko. Honekin ere batzuk aztoratu egin dira.

Berez, kritika ez dut txarra denik uste. Hutsez konturatzeko eta hauek hobetzeko aukera ematen baitigu, baina makalaren kontra egitea errezagoa da eta hutsak konpontzeko bideak eraikitzea, benetan nekeza. Kritikak zerbait mugitzen ari dela erakusten digu eta honekin maila hobetzea lor daiteke berarekin ikasiz. Eta egiten den guztia txarra ez dela ikusteko baditugu euskara hutsean eginiko lan on askoak. Herrian bertan ere, BERRIGARA soineko berriarekin asko edertu da eta zer esanik ez Asier Altunak, Telmo Esnalekin batera eginiko *Txotx* filme laburra.

Egun, beste sasoi batzuetan baino errezagoa da euskaraz bizi izatea. Bakoitzak aukeratu behar du Telefonicako fakturak zein hizkuntzatan nahi dituen, seme-alabek non ikasiko duten... Aukerak aprobetxatu eta bizi euskaraz, zergatik ez? B

■ asteko menua

Piku tarta



ANA MARIA LARRAÑAGA
Ortiz Erretegiko sukaldaria

OSAGAIK (4 lagunentzat)

- Dozena bat piku fresko
- 2 arrautza
- 100 gramo azukre
- Cointreau txorrostadaxo bat
- Litro laurden bat esnegain

PRESTAKETA

- Moldea pasta brisarekin forratu eta labean sartu, 175 gradura.
- Pikuei azala kendu, zatitu eta moldean jarri.
- Arrautza, azukrea, esnegaina eta likorea nahastuz krema egin.
- Krema gehitu pikuei eta ondo nahastu.
- Moldea labean sartu, 175 gradura.
- Mahaira atera aurretik, nahi izanez gero piku marmelada gehitu.

■ aditu en esanetan

Zelulitisa

MARIA ISABEL HURTADO, dermoestetizista

Hogei bat urtetik aurrerako emakume gehienek izaten dituzte zelulitis arazoak, emakumezkoen hormonek zerikusi handia daukatelako zelulitisa agertzeko. Gizezkoetan ez da ia kasurik ezagutzen. Estresa, zirkulazio txarra, elikadura desegokia edota alkohola eta tabakoaren eragina ere nabaria izaten da. Honen ondorioz, nodulu itxura hartu dezake azalak eta noduluak (irtenak eta sartuneak azalean) orkatiletan, hantetako gihar bikietan, belaunetan, izterren kanpoaldean ("pistoleretan") edota femoraletan agertzen dira normalean. Zona batzuetan konzentratzen da zelulitisa eta odolaren garbiketaz ardu-

ratzen den sistema linfatikoak ondo lan egiten ez badu, zelulitisa izateko arriskua handiagoa da.

Zelulitisari aurre egiteko modurik onena elikadura orekatua eramatea da, gozokiak, hestebeteak, kafea edota tabakoa saihestuz. Era berean, ariketa fisikoa erregulari eta erritmo egoki batez egiteak ere mesede handia egingo digu. Horrez gain, badira gaur egun zelulitisaren kontrako oso tratamendu onak ere. Oso nekeza da zelulitisa erabat kentzea, baina emakumeoi berezkoa zaigun gaitz hau neurri batean kontrolatzeko aurreko gomendioak jarraitzea izango da onena. **B**


■ bergarako gordailutik

DONOSTIATIK BERGARARA, ITSASOZ ETA IBAIEZ GEHIENA

Imanol Sorondo

Bergaran garia eta artoaren eskasia handia zen 1711 urtean. Donostiatik, bertan soberan baitzuten, ekartzea erabaki zuten. 520 anega gari eta 441 anega arto ziren karriatzekoak eta ekartzeko egin zuten bidaia harrigarria da gaurko ibilaldietarako.

Lehenbizi, Donostiatik Debara, itsasoz, Nikolas Lekunberri ontzizain zutela; idatzian "txalupero" deitzen diote. Gero, Debatik Alzolara, ibaiez, "alas" deituriko txalupa batzuetan. Azkenik, Alzolatik Bergarara idiak karriatutako gurdietan. Hainbeste anegarendako txalupa eta gudi mardoska behar izan zituzten. Idiekien egindako bidaia ez zen erraza izan; Alzolara joan ondoren, hutsik etorri behar izan zuten, zehazten ez den galerazitako eragozpen bat aurkitu zutela eta.



Horrelako garraio baterako gauza gehiago ziren beharrezkoak adibidez, nork jasoa eta ipinita kaietako utzilekuak, zakuen prestaketa, gari eta artoen pisaketak. Bergarako zenbait ganbaratara igotzea. Horiek denak bere prezioarekin ipintzen dira. Gauzak aurrean eramateko, udaletxeak, Elkoro Migel Lopez eta Iriza'tar Domingoz Perez izendatu zituen ordezkari.

Beti esan izan da Alzolaraino ibaiez etorri zitekeela, baina garia eta artoa Bergarara karriatzeko bidaiarik onena izan zitekeenik ez genuen uste. **B**

1943ko kintoak

1943ko kintoek **anai arteko eguna** ospatu zuten joan zen zapatuan. 23 lagun elkartu ziren eta Santa Marinaran hildako lagunaren aldeko meza entzun ostean, afaria izan zuten. Afaldu aurretik, ordea, argazkia atera zuten.



JUAN IDIGORAS



Bideo ikastaroak

Bost lagun ari dira **Islada bideo tailerrak** antolatutako bideoaren hastapenei buruzko ikastaroan. **Amaia Labaienen** eskutik, bideo kamararen sekretuak ikasten hasi dira eta astero 12 ordu klase izango dituzte maiatzaren 8ra arte. Era berean, Isladak beste bi ikastaro antolatu ditu: **Mitzel Gaztanbide** gidoilaritza ikastaroa emango du uztailaren 6tik 21era bitartean eta urriaren 23tik azaroaren 27ra edizio ikastaroa egongo da. Aukera paregabea kalitatezko lanak egiten ikasteko...

Opel Astra berria

Opel Astra berria aurkeztu zen eguakitzean **Ola Tailerretan**. Bergarako Opel kontzesionarioko arduradunek modelo berriak aurrekoaren ibilbide arrakastatsua izatea espero dute. Eguakitzean jende dexente hurbildu zen Olara Astra berria gertutik ezagutzeko asmoz. Ikusgai jarritako kotxeek guztien begiradak erakarri zituzten. Aurkezpen ekitaldiaren ondoren luntxa banatu zen. Pintxoek ere kotxearen pareko arrakasta izan zuten...



Gasteizen patinatzen

Ohizkoa denez, **Erramu Zapatuko txorimalo lehiaketan** saritutako gaztetxoek Gasteizera txangoa egin zuten. Joan zen apirilaren 4ko txorimalo lehiaketan lehen bost postuetan sailkatu ziren 14 urtetik beherako 27 gaztetxok zapatu arratsaldea **Mendizorroztan** patinatzen igaro zuten. Nahiz eta zenbaitzuk ekilibrioa mantentzeko arazoak izan, guztiek primeran pasatu zuten eguna, lagunartean eta giro onean. Hurrengora arte!!


JANTZIDENDAK

Casa Agirre. Bidekurutzeta 18.
Aroa. Bidekurutzeta 6.
Bergara Piel. Espaloia 6.
Cristina. Arruriaga z/g.
Gallastegi. San Pedro 15.
Ikus-Bi. Irala 5.
Janden. Irizar 3.
Laket. Barrenkalea 35.
Lide. Bidekurutzeta 19.
Mujika jostundegia. Barrenkalea 1.
Prakak. Burdiñate 1.
Siaska. San Pedro 10.
Subijai. Irizar 1.
Yazki Ume. Irizar 3.
Yazki gazte. Ibargarai 8.
Zatoia. Barrenkalea 4.
Zubikua. Barrenkalea 24.



KIROLAK

Aisor. Bidekurutzeta 7.
Jauja. Irizar 3.
Xamartin. Ibargarai 20.




OSTALARITZA

Irrintzi. Irala 3.
Miner banatzailea. Matxiategi 23.
Larrañaga banatzailea. Martoko 3.
Agirrebeña. Ibarra 2.
Antxoni. Fraiskozuri 4.
Ariznoa. D.Irala 1.
Arrano. Kruz Gallastegi.
Avenida. Fraiskozuri 6.
Azpeitxi. Aranerrekka 13.
Canalejas. San Antonio 6.
La casa del pueblo. Bidekurutzeta 23.
Deportivo. Bidekurutzeta 3.
Dixula. Barrenkalea 32.
Etxagi. Masterrekka 8.
Erreki. Fraiskozuri 3.
Euskalduna. Osintxu.
Ganbara. D.Irala z/g.
Gaspar. Barrenkalea 31.
Guria. Bidekurutzeta 5.
Infernukua. Masterrekka 23.
Kaixo. Zurradero 4.
Kortazar. Barrenkalea 16.
Lasa. Ozaeta jauregia.
Maxim's. Simon Arrieta 5.
Nahikari. Masterrekka 20.
Oilagorra. Barrenkalea 21.
Osintxu erretegia. Osintxu 24.
Pol-Pol. Komenio kalea z/g.
Sirimiri. Barrenkalea 3.
Tartufo. San Juan auzoa z/g.
Txuringo. Osintxu 14.
Usoa. D.Irala z/g.
Zabala. Ibarra z/g.
Zer-Nai. Telesforo Aranzadi 4.
Ziripot. Bidekurutzeta 11.
Zumelaga. San Antonio 5.
Igerilekuetako taberna. Agorrosin z/g.



HARATEGIAK

Lazpiur J. Komenio 2.
Leturia J.L. Artekalea 5.
Leturia J.M. San Pedro 24.
Rezola L. M. Matxiategi 7.
Urzelai P. Ibargarai 7.
Zurutuza J. M. Urteaga 9.
Igarza J.J. Irizar 3.
Imaz S. Aranerrekka 1.
Mugertza. Mugertza 12.
Leturia I. Zubiaurre 23.



ZERBITZUAK


Ecuador bidaiak. Arruriaga 10.
Bel bidaiak. Zurradero 4.
Carasa, Cilveti, Lacort y Cia. Fleming doktorea 3.
Lagun Aro. Ramon Maria Lili 6.
Zurich. Irala z/g.
Grupo A4 aholkularitza. Artekalea 16.

Har ezur San Pankraeg

MAIATZAREN 12AN HEMEN DIRA


OIHALAK

Anezka. Espaloia 8.
Artazi. Katabia z/g.
Casa Ugalde. Bidekurutzeta 13.
Edel tapizdenda. Bidekurutzeta 14.
Fernandez. Ibargarai 2.
Gaston y Daniela. Kruz Gallastegi 3.
Maher. Bidekurutzeta 29.
Aranzabal. Zubieta 32.




JANARIDENDAK

Aldi-Irala. Irizar 3.
Erosle Mazorriaga. San Pedro 21.
Hurbil dietetika. Aranzadi 2.
Itxas Eder arrandegia. Mintegi 5.
Izadi dietetika. Zurradero 2.
Kabutzia arraindegia. Fraiskozuri 6.
Larrañaga gozotegia. San Pedro 9.
Goxo-Toki gozotegia. Irala 3.
Laskurain janaridenda. Artekalea 4.
Mari Karmen arraindegia. Kruz Gallastegi.
Mujika gozotegia. Artekalea 3.
Zapaterikua janaridenda. Joan XXIII.a plaza.
Txukun. Fraiskozuri 6.



BURDINDEGIAK - BRIKOLAKETA



Gaztelu burdindegia. Mintegi 1.
Gisasola burdindegia. San Pedro 8.
Mujika burdindegia. Bidekurutzeta 8.
Ardatza brikolaketa. Masterreka 4.

ELEKTRAGAILUAK

Biltoki. Barrenkalea 6.
Herran. Matxiategi 3.
Radio Bergara. San Pedro 25.
Santos RTV. Masterreka 2.
Telkar. Ibargarai 2.
Zaiazko. Aranzadi 3.
Jakina. Amillaga 10.



zu parte degunean!

ME DIREN

IO ETA TABERNETAN


BAILE BAT

DUZUE ZUEN BISITAN.



PERFUMERIAK

Amaia. Barrenkalea 25.
Alga. Ibargarai 10.
Camacho. Bidekurutzeta 24.
Egiluz. Irizar 3.
Goiara. Irala 3.
Igaro. Barrenkalea 35.



ALTZARIAK, DEKORAZIOA

Biltoki. San Martin Agirre plaza 2.
Edertu. Barrenkalea 23.
Guridi. Artekalea 8.
Iraurgi. Kruz Gallastegi 7.
Rementeria. Artekalea 6.
Rincones. D.Irala z/g.
Kilika. Barrenkalea 18.
Kanela. Espoloia 10.




OPTIKAK - BITXITEGIAK - ARGAZKIAK

Manso optika. Irizar 2.
Argazki. Barrenkalea 16.
Foto Sistema. Ibargarai.
Kiñu. Barrenkalea 35.
Arantza bitxitegia. Barrenkalea 4.
Etxeberria bitxitegia. Bidekurutzeta 16.



PAPERDENDAK - TINDATEGIAK - BESTE

Elkar. Arruriaga 1.
Idatzi. Barrenkalea 14.
Ikasle. Fleming doktorea 11.
Marcó. Bidekurutzeta 44.
Akort. Mugertza 7.
Jolas. Barrenkalea 27.
Onena tindategia. Barrenkalea 29.
Renteri tindategia. Ikerleku 4.



LOREAK ETA PENTSUAK

Ninika. Ramon Maria Lili 3.
Lislore. Barrenkalea 28.
Ibarguren pentsuak. San Pedro 3.
Narbaiza pentsuak. Masterreka 22.



MERTZERIAK - LENTZERIAK

Gantxegi. Aranzadi 2.
Gracian Agirre. Bidekurutzeta 6.
Igarza. Irala 5.
Itziar. Matxiategi 1.
Juana elgetarra. Zubieta 28.
Mirari. Martoko 32.
Nerea. Simon Arrieta 1.
Phildar. Irala 5.



OINETAKOAK ETA POLTSAK

Agirrebeña. Urteaga 5.
Aldasoro. Espoloia 4.
Carmen Garate. Bidekurutzeta 15.
Egizabal. Bidekurutzeta 13.
Galarreta. Irizar 2.
Garnish. San Pedro 12.
Lazkano. Barrenkalea 15.
Lonbide. Bidekurutzeta 5.
Retegi. San Pedro 18.
Yoar. Barrenkalea 9.



Non aparkatu?

Udaltzaingoa herriko aparkalekuak aztertzen ari da

Azkenaldian kotxea erdialdean aparkatzea ia ezinezkoa bilakatu da. Herrian martxan jarritako obren ondorioz, aparkalekuak gutxitu egin dira eta gidariak nahiko kezkatuta daude kontu honekin. Erdialdean kotxea lagatzeko lekua topatzea, puntako orduetan bereziki, ez da txantxetako gauza eta, egoera honen aurrean, Udaltzaingoa arazoaren gaineko azterketa egiteari ekin dio.

Datozen egunetan Udaltzaingoa herrian diren aparkalekuak eta garaje plazak zenbatuko ditu, herriko zona bakoitzean egoera zelakoa den zehaztasun osoz jakiteko.

Oraindik ere ikerketa egiteke badago ere, Udaltzaingoa emandako datuen arabera, Bergarako erroldan ia 6.673 ibilgailu zeuden inskribatuta, aurreko urtean baino %2,6 gehiago. Kopuru horretatik gehienak turismoak ziren (5.808), kamioiak 504, 312 motozikleta, 36 erremolke eta 13 autobus.

Azkenaldian badirudi ez dagoela guztientzat lekurik. Ibargarai kalean eta Joan XXIII.a plazan obretan dira eta aparkalekuak 200 bat plazatan gutxitu dira azken asteotan. Javier Gabilondo Gobernu Batzorde buruaren arabera, "arazoak ez du soluzio errezik eta konpondu baino okertu egingo da jaien ostean, Beheko Estazioaren inguruan Erantzaintzaren komisaldegia berria egiteko lanak martxan jarri eta Urkuluko urak bideratzeko tuberiaren trazaketa berria egingo baita. Hain zuzen ere, datorren urterako barrakak jartzeko kokaleku berria topatu beharko dugu eta, ziurrenik, Poligonoan jarriko dira, garai bate-

an egiten zen moduan. Ibargarai inguruko obrak aurrera doazen heinean, aparkatzeko leku gutxiago izango da. Orain arte pribatua zen lursaila aprobetxatzeko aukera izan dugu Ibargarain baina hori ez zen Udalaren terrenua. Gure aldetik gai honen inguruko ardurabada eta, horregatik, benetako egoera zein den jakiteko ikerketa agindu dugu. Dena dela, uste dut toki guztietan izaten den arazoa daukagula. Esate baterako, orain arte Eibarren edo Arrasaten (parkingak dituzten arren) baino arazo gutxiago izan dugu".

Bedelkar herriko dendarien elkarteak ere azaldu du gai honen inguruko kezka. Superficie handietan gertatzen den moduan, erosleak herrira erakartzeko kotxeak aparkatzeko nahikoa leku egotea ezinbestekotzat jotzen dute dendariak eta behin baino gehiagotan eskatu diote Udalari neurriak har ditzala. Hala ere, Udalak ez du oraingoz parking bat martxan jartzeko asmorik azaldu eta, beraz, aparkaleku plazak erdialdean sortzea ezinezkoa da momentuz.

Puntu beltzenak, hain zuzen, erdialdean kokatzen dira. San Lorentzotik

Ozaetara bitartean 2.403 aparkaleku daude zenbatuta eta trafiko dentsitate altuena, ordu zehatz batzuetan batez ere, Fraiskozurin, Iralan, Irizarren, Kru Gallastegin eta San Martin plaza inguruan ematen dira. Udaltzaingoa arazobera, Bolun, Zubiaurren eta Matxian ere nahikoa arazo izaten da aparkatzeko. Bestalde, egun jakinetan (pilote partiduak izaten direnean, UNEDen ikastaro egunetan edota Erramu Zapatuan gertatu zen moduan) egoera oraindik okerragoa da, trafikoa denbortegitzen baita.

Azkenaldian herrian martxan jarritako obren ondorioz, aparkalekuak 200 bat plazatan gutxitu dira. Batez ere erdialdean aparkatzeko arazoak izaten dituzte herriko gidariak





Azkenaldian herritarren kexak gehitu egin dira Udaltzaingotik adierazi digutenez. Aparkalekuen gutxitzeak bat egin du ibilgaluen zerga ordaintzeko epearekin (maiatzaren bukaerara arte izango da zabalik) eta hainbat gidarik euren haserrea azaldu dute. Gaur egun, ibilgailuaren potentzia fiskalaren arabera, 3.085 eta 21.920 pezeta bitartean ordaintzen da zerga hori. Zortzi eta hamabi bitarteko potentzia fiskala duten kotxeengatik 8.335 pezeta ordaintzen badira ere, 12tik 16ra bitarteko potentzia fiskalera jabeek 17.595 pezeta ordaintzen dituzte. Askotan motorra diesela izatea nahikoa izaten da bigarren kategorian honen barruan sartzeko eta Udalak, Arrasatekoarekin batera, Diputazioari sailkapen horretan aldaketak egiteko eskatuko dio, zerga bien arteko aldea gehiegizkotzat jotzen baita.

Aparkalekuei dagokienez, oraingoz ez da neurrik hartzea pentsatu, Javier Gabilondok adierazi digunez; "epe laburrera, behintzat, ez da ezer egingo eta badakigu Pazkuetan eta Euskal Bizikletaren egunean ere arazo asko sortuko zaizkigula. Dena den, Euskal Bizi-

kletako antolatzaileek eskatutakoari erantzuteko gertu gaude eta ez dut uste beste tokietan baino arazo gehiago izango denik Bergaran". Udaletik, apar-

kalekuen arazoa gutxitze aldera, kotxea beharrezkoa denean bakarrik erabiltzea eskatzen da, askok leku guztietara kotxez joateko ohitura baitute. B

Multa gehienak erdialdean

Joan zen urtean udaltzainek 2.476 isun jarri zituzten herrian; 1.199 Bergarako bizilagunei zegozkien eta gainontzeko 1.277 isunak beste udalerrri batzuetako gidariei. 1996ko datuekin konparatuta, isunen kopurua %1,6 igo zen. Udaltzaingoak bakarrik bergararrei jarritako isunak tramitatzen ditu zuzenki eta jarritako 1.199 isun horietatik urte amaieran 550 isun (%45,8 hain zuzen) zeuden ordainduta. Alfonso Alonso Udaltzainburuaren arabera, "kopuru hori nahiko altua da beste herri batzuetarekin konparatuz gero, beste hainbat lekutan %15 kobratzera iristen baitira bakarrik". Gainontzeko isunei dagokienez, 578 kobratu gabe daude eta 71 isun ba-

liogabetu egin ziren. Jarritako isunei esker, guztira, 1.100.000 pezeta jaso zituen Udalak iaz. Oraindik ordaindu gabe dauden kopurua 1.161.000 pezetakoa da. Udaltzainek jarritako isun gehienak (%98,5) gaizki aparkatzeagatik jarri ziren eta, espero zitekeen moduan, gehienak erdialdean jarri ziren. Kale "konfliktiboenak" Irizar (224 isun), Kruz Gallastegi (173), Masterreka (169), Arrurriaga (152) eta Bideberri (140) izan ziren. Bestalde, bertan behera lagata zeuden 36 ibilgailu topatu zituzten eta horietatik 22 jabeek eurek erretiratu zituzten; izan ere, orain dela hiru urte laga zion Udaltzaingoak abandonatutako ibilgailuak guzaz erretiratzeari.



Aste honetan bertan ateratako argazki hauetan ikusten da puntako orduetan aparkalekuak kotxez beteta izaten direla. Batek baino gehiagok txarto aparkatu behar izaten du. Joan zen urtean 2.476 isun jarri zituzten herriko udaltzainek.



Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

EGUAKITZEAN BARRUAN. FINAL LAURDENAK

10:30: A Ze Flaxa Etxagi-Artusamak

Arb.: Antolaketa Batzordea

17:00: Mogatxurrak-Etengabe

Arb.: Antolaketa Batzordea

18:00: Manitou-Bayer

Arb.: Antolaketa Batzordea

19:00: Azpeitxi Jatetxea-Autoberezi

Arb.: Antolaketa Batzordea

DOMEKAN BARRUAN. FINAL ERDIAK

11:00: A Ze Flaxa/Artusamak-Bayer/Manitou

Arb.: Antolaketa Batzordea

19:00: Mogatxurrak/Etengabe-Azpeitxi/Autoberezi

Arb.: Antolaketa Batzordea

argi!

Astebukaeran final laurdenak eta final erdiak

Astebukaera honetako partiduak berdinketarekin amaituz gero, bost minutuko luzapena jokatuko da eta hau ere berdinketarekin amaituz gero, bosna penalti jaurtiko dituzte taldeek.

Bi jokalarizigortuak

Fernando Agirrebeña (Azpeitxi Jatetxea), txapelketatik kanpo laga du Antolaketa Batzordeak, epaileari irainak egiteagatik eta adarra jotzeagatik. Bestalde, Joseba Balzategiri (A Ze Flaxa Etxagi) bi partiduko zigorra ezarri dio Antolaketa Batzordeak, epailea iraintzeagatik.

Kopako finala

Kopako finalerako sailkatzen diren taldeak zeintzuk diren astebukaera honetan erabakiko da. Halere, finala ez da datorren astean jokatuko, Play Offetako finalekin batera jokatuko asmoa baitu Antolaketa Batzordeak. Nolanahi ere, Pazkuak baino lehen jokatuko da.

Nesken futbitoa

Astebukaera honetatik aurrera partidu guztiak Labegaraieta kiroldegian jokatuko dira. Orduetgia errespetatzea eskatu du Antolaketa Batzordeak.

jokoz kanpo



Oskar Navarro
AGIÑASPI

G. Zein postutan sailkatu zarete Ligan?

E. Lehen mailatik bigarrenera jaitsi gara.

G. Eta Kopan?

E. Jadanik kanporatu egin gaituzte.

G. Arbritoen lana zer iruditzen zaizu?

E. Ondo. Ni ere arbitratzen ibili naiz eta beti dago kexatzen den norbait. Normala da.

G. Txapelketako talderik onena zein izan da?

E. A Ze Flaxa Etxagi.

G. Txapelketan zerbaiten falta somatu duzu?

E. Ez. Antolatzaile onak eta borondate handia dago.

G. Jokalaririk onena?

E. Nire taldean, Pako eta Rober.

G. Zure taldean zeren falta somatu duzu aurtan?

E. Jendea. Lesio asko izan dira eta beti jendez larri ibili gara.

G. Zure taldeko gauzarik onena?

E. Partidu ondorengo porroia.

G. Zein postutan jokatzen duzu?

E. Atezain.

G. Ligan gehien atsegin duzun jokalaria?

E. Luis Enrique.

G. Reala Europan ikusteko aukera izango dugu?

E. Athletic sailkatzen bada, Reala sailkatzea ez litzaidake axolako.

gora eta behera



Etengabe eta MRW

Etengabe taldea Kopa txapelketako errebelazioa bihurtu zaigu. Sekulako txapelketa egiten ari da eta poliki-poliki final laurdenetan sartu zaigu. Kontutan izan behar da Ligan laugarren mailan aritu dela beraz, merito haundiagoa dauka egindakoa. Joan zen astebukaeran bigarren mailako Ezinleike laga zuen kanpoan, 5 eta 1 irabazi ondoren. Aurreko kanporaketetan, berriz, Gazteak eta La Juve, hau ere bigarren mailakoa, laga zituen kanpoan. Bestalde, MRW taldeak ere txapelketa bikaina egin du. Ligan hirugarren mailan aritu bada ere, Kopan final laurdenetara iritsi da, txapelketako talderik gogorrenetakoaren aurka, 4 eta 3 galdu bazuen ere.



Antolaketa Batzordea

Taldeak arbitratzen dutenean bi jokalariz joatea eskatzea eta Antolaketa Batzordeak arbitratzen duenean, bakarra joatea ez dirudi oso zuzena. Besteei eskatzeak, norberak egin behar du lehenengo.

emaitzak

KOPA TXAPELKETA

Azpeitxi Jatetxea-Shaktale 5/1

Jakina Patxaran Team-**Bayer** 3/4

Uve Bikoitza-**A Ze Flaxa Etxagi** 2/3

Autoberezi-Amozkibar 2/3

Ezinleike-**Etengabe** 1/3

Manitou-MRW 4/3


Artusamak-Guadalest 6/3

NESKEN IV. FUTBITO TXAPELKETA

Azkenak-Gu Geu 6/3

Nifis-Blue Star 10/3

Potzu Ta Zapaburuak-Nahikari 3/3



Irizar 2

☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

MUJIK UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGI BERRIA:
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE


ESKOLA KIROLAK

IKUSI ETA IKASI

FUTBOLA

Jokoa: Lau ertzetara baloiaz

Joko-eremua: Zenbait zelai karratu.
Antolaketa: Bosnaka.
Materiala: boskote bakoitzak baloi bat, klarionak edo uztaiak.
Azalpena: Lau lagun, bakoitza uztai edo margotutako etxe baten barruan.
Etxerik ez duena erdian jarri eta uztai bat bereganatzen saiatuko da, besteak lekua elkarri trukatzeko ahaleginduko direlarik.



TXINPARTAK

Futbitoko finala kiroldegian

Joan zen asteko final aurrekoetan, Los Chicos de Altuna eta Aranzadi 202 taldeek garaipena lortu ondoren, eguakitzean, maiatzak 1, finalean izango dira aurrez-aurre. Labegaraietako Kiroldegian jokatu da finala eguerdiko 12:30etan.

Saskibaloiko final aurrekoak Donostian

Aranzadi 10 eta Aranzadi saskibaloiko alebin eta infantil taldeek, Elgoibarko taldeak eliminatu dituzte eta Gipuzkoako txapelketako azken faserako sailkatu dira. Datorren astean, maiatzaren 9an, final laurdenak jokatu beharko dituzte Donostian. Zorte on!



Aranzadi 203

Aranzadi 203 kadete mailako taldea, goiko ilaratik hasita: Josu Aranzabal, Iñigo Olañeta, Egoitz Acebo, Iker Eguren, Jon Bakaikoa eta Mikel Herranek osatzen dute. Adin ezberdinetako taldea dugu, 15 urtetik 17ra arte.

Eskola kirolean, areto futbolean jardun dute, tenisa ere oso gustoko izan arren. Beste talde batzuekin batera jokatu-tako ligan bigarren sailkatu ondoren, final aurrekoa galdu egin zuten Los Chicos de Altuna taldearen aurka. Realzaleak dira eta kirolari gustokoenak, Aranzabal eta Berasategi dituzte.



Los Chicos de Altuna

Los Chicos de Altuna kadete taldea, Jon Ortiz de Zarate, J. Mari Alcantara, Ander Ortigosa, Jorge Morais, Oskar Jimenez eta Fernando Vazek osatzen dute. Futbola oso gustoko dute eta eskola kirolean, areto futbolean jardun dute.

Partidu asko jokatu dituzte eta talde gogorrena Aranzadi 202 dela diote, nahiz eta beraien taldea bikaina dela aitortu. Athletic, Bartzelona eta Real Madrid taldeen jarraitzaileak dira eta jokalarietatik, Luis Enrique dute gustokoen. Taldekide bakar batzuk, Labegaraietako futbito Txapelketan ere jokatzen dute.

KARTELDEGIA

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Domekan, Zabalotegiko pilotalekuan, 10:00etatik aurrera. Sei partidu jokatu dira:

1. Bergara-Arrasate (Bergara: Azagirre eta Iñarra).
2. Arrasate-Aretxabaleta.
3. Bergara-Eibar (Bergara: Azagirre-Iñarra).
4. Soraluze-Aretxabaleta.
5. Oñati-Aretxabaleta.
6. Soraluze-Bergara (Bergara: Altuna eta Iñarra).

SAILKAPENA

ESKUBALOIA

Benjaminak

Aranzadi 6	14
Antzuola B	13
M. Lagundia A	12
Antzuola A	10
San Martin	10
Aranzadi 3	8
M. Lagundia B	6
Aranzadi 5	6
Aranzadi 1	5
Elgeta	4
Aranzadi 2	4
Aranzadi 4	3

SASKIBALOIA

Alebinak/Mutilak

A MULTZOA

Aranzadi 12	8
Antzuola	6
Aranzadi 7	4
M. Lagundia B	2
Aranzadi 9	0

B MULTZOA

Aranzadi 10	8
Aranzadi 11	6
M. Lagundia A	4
San Martin	2
Aranzadi 8	0

Alebinak/Neskak

Aranzadi 13	6
Aranzadi 14	4
Antzuola	2
San Martin	0

Futbola



BKEko futbol talde nagusiak ezin izan zion Orioko taldeari irabazi.

Nietoren mutilek partidu bikaina jokatu arren, berdinketarekin konformatu behar izan zuten. Lehen mailako jubenilek ere berdindu egin zuten Elgoibarren. Bigarrenekoek, aldiz, irabazi. Azken hauek, denboraldi bikaina egiten ari dira. Zoritxarrez, ezin izango dira mailaz igo, lehen mailakoek igotzen ez duten bitartean.

Lehen eta bigarren mailako kadeteak Gipuzkoako Kopan daude. Bigarren mailakoak partidu bikainak jokatzen ari dira. Lehen mailakoak bestalde, sailkapeneko azken postuetan daude. Azkenik, infantilek partidua aurrera atera zuten bitartean, neskek, bat eta lauko emaitzaz galdu zuten.

Eskubaloia



Iraundi Bergara eskubaloi taldeak, Donostiako Loiolaren aurkako

partiduan berdinketa lortu zuen. Lehen zatia irabazten hasi arren, bi taldeen arteko indarrak parekatuta egon ziren bigarren zatian. Une honetan, Lijoren mutilak sailkapenaren erdialdean daude. Kadete mutilek eta neskek, jokaturako partiduetan garaipena lortu ondoren, sailkapeneko lehen postuetan jarraitzen dute.

Neskek jokaturako bi partiduetatik biak irabazi dituzte. Mutilek, beste talde batzuekin batera daude sailkapenaren aurrealdean. Partiduak irabazten jarraitu beharko dute berdinketa hori desegiteko. Josetxoren mutilek bestalde, Kopako lehen partidua galdu zuten, Arrateren kontra.

Saskibaloia



Bolsos Bergara BKEko saskibaloio taldeak, Azpeitiaren aurkako

partidua galdu egin zuen eta ondorioz, sailkapeneko bederatzigarren postuan gelditu dira. Astebukaera honetan, Iruñean jokatuko dute azken partidua.

Jubenil mutilak, berriz, joan zen asteko partidua irabazi egin zuten eta sailkapenean eurekin parekatuta zeuden taldeek galdu egin zuten, lehen postuan jabe egin dira. Asteburuan, Beasainen aurkako partidua irabazi beharko dute, lehen postuan jarraitzeko. Jubenil neskek eta kadete mutilek, berriz, galdu egin zuten. Azken hauei lau partidu falta zaizkie eta, momentuz, 8. postuan daude. Neskak sailkapeneko azken postuetan daude.

HELENA HERREROS/ Gimnasia entrenatzailea "Gimnasta onenak hemengoak dira"

Sei urtean zehar gimnasia erritmikoan aritu eta hainbat txapelketatan parte hartu ondoren, une honetan, Bergarako gazteak entrenatzen diharduen bakarra da.

G. Noiztik entrenatzen?

E. Bederatzi urte daramatzat. Antzuolan talde bat entrenatzen dut eta Bergaran bi; bat txapelketetan dabil.

G. Zer ari zarete gertatzen?

E. Orain txapelketan gaude: zapatuetan eskolarrekin eta domeketan federatuekin. Joan zen astean Abetxukon eta Eibarren izan ginen eta astebukaera honetan Alzara joan behar du, Donostiara.

G. Zer da gimnasia erritmikoan gauzarik garrantzitsuena?

E. Orain arte, ezaugarri fisikoei eman zaie garrantzi handiena, baina nire ustez, gogoia ezinbestekoa da. Gogoia izanda, ezaugarri fisiko egokiak lortu daitezke.

G. Nolako puntuaketa erabiltzen da?

E. Hiru epaimahai daude. Bakoitzak ezaugarri batzuk epaitzen ditu; muntaiaren zailtasunak, elementuen erabilera eta akatsak dira normalean epaitzen diren elementuak.

G. Zenbat toki bisitatu dituzue?

E. Leku asko; Sevilla, Palma de Mallorca, Alicante...

G. Ze tresna erabiltzen dituzue?

E. Guztiak. Urtero aldatu egiten ditugu. Federazioak erabakitzen ditu. Aurten, aroa, soka, pilota eta zinta dira.

G. Maila ona al dago hemen?


E. Estatu mailako gimnasta onenak Euskal Herrikoak dira.

G. Bergarako taldea nola dago?

E. Erdi aldean sailkatuta gaude.

G. Gimnastarik gustokoena?

E. Elena Vitritchenko ukrainiarra. Talde mailan, Espainia eta Errusia.



KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Urola

Infantil maila.

Eguakitza. 11.30. Ipintza.

Antzuola-Bergara

Lehen erregionala.

Zapatua. 17:00. Estala (Antzuola)

ESKUBALOIA

Bergara-Urola

Infantil maila.

Eguakitza. 11.30. Ipintza.

SASKIBALOIA

Bergara-Aloña Mendi

Kadete mutilak.

Zapatua. 12:15. M. Lagundia.

PILOTA

• **Herri arteko txapelketa**

Bergara-Billabona

Eguakitza. 21:00.

Udal Pilotalekua.

• **Federazio Txapelketa**

Gipuzkoa-Zamora

Domeka. 11:45.

Udal Pilotalekua.

NESKEN IV. FUTBITO

TXAPELKETA

Zutaz Pentsatzen-The Road

Eguakitza. 11:30.

Labegaraieta Kiroldegian.

Arb. Antolaketa Batzordea.

Potzu-Blue Star

Domeka. 16:00.

Labegaraieta Kiroldegian.

Arb. Antolaketa Batzordea.

Gu Geu-The Road Island

Domeka. 17:00.

Labegaraieta Kiroldegian.


Arb. Antolaketa Batzordea.

Nifis-Azkenak

Domeka. 18:00.

Labegaraieta Kiroldegian.

Arb. Antolaketa Batzordea.



Philippe Louviot, Jean François Bernard eta Laurent Fignon, 1992ko Euskal Bizikletan Bergaran.

ARTXIBOA

Euskal Bizikleta Bergaran

Pazkuetako lehen egunean helduko da

Euskal Bizikletaren VIII. edizioak, helmuga eta irteera Bergaran izango ditu maiatzaren 29 eta 30ean. Guztira bost jardunaldi izango dira eta, bertan, munduko txirrindulari famatuena ikusitako aukera izango da.

Eibarko Bizikleta izeneko Txirrindu Lasterketa zena, Euskal Bizikletaz ezagutzera eman zen 1991. urtean. Harrez gero, ikusmin handia sortu du eta txirrindulari asko, Tourra prestatzeko korritzen dute. Hauek izango dira urtengo jardunaldiak: Eibar-Biasteri, Biasteri-Bergara, Bergara-Abadiño, Abadiñoen erlojuaren kontrako neurketa, eta azkenik Iurretara (ETB)-Arrate.

Zein talde izango diren ziurtatuta ez egon arren, Olano, Ulrich eta Rijs lasterketan izango dira.

Biasteritik datorrenak 152 kilometro izango ditu eta Ibergaraira, frontoi aurrera, 16:30ak inguruan heldzea espero da. Irteera, berriz, Santa Marina eliza inguruan izango da zapatuan, goizeko hamarrak aldera.

Ikuskizuna handia izango dela adierazi digute Pello Garitano eta Jesus Kortabariak: "Egia da zenbait aparkalekuren beharrean izango garela eta lasterketa egunetan bide batzuk itxi beharko direla, baina ez da luzaroan izango eta ikuskitunak merezi du".

Bigarren aldiz Bergaran

Duela sei urte ere, Euskal Bizikletaren etapa bat Bergaran izan zuen helmuga

ga eta irteera. Arazo nagusia aurrekontua osatzea izaten da eta, aurrean, Bergarako Udalaren eta publizitatearen bidez osatuko dute. "Eskaintza faltan ez gaude. Euskal Herriko Itzuliak Bergaran helmuga izateko eskaintza ere badugu, baina horrek aurrekontu handia dauka" esan digute.

Giroarekin batera korrituko da

Euskal Bizikleta eta Giroa egun berdinetan izan arren, txirrindulari ezagun asko ikusteko aukera izango dugu. "Oraindik taldeak zehaztu gabe daude baina Olano, Ulrich, Rijs eta Tourrera joango diren beste hainbat, bertan izango dira".

Bestalde, lasterketaren aurreko egunean, egunean, gazteentzako ekintza bereziak antolatuko ditu Lokatzak. Sariak eta opariak banatuko dituzte. B

Gipuzkoako atletismo txapelketa

Mikel Uribesalgo

bergararrak 4. postua eskuratu berri du, Anoetan jokatuako Gipuzkoako Atletismo Txapelketan. Luzera jauzian, sei metro egitea lortu zuen, Arrasate Kirol Elkartearen tizat bost puntu lortuz. Arrasate Kirolak Elkarteak laugarren postuan sailkatzea lortu zuen 85 punturekin. B

Labegarrietako Txirrindulari lasterketa

Zapatuan, Labegarrietako jaiak direla eta, XXXVI. Txirrindulari Lasterketa antolatu du Lokatza taldeak. Hasiera Bentako bidegurutzan emango zaio arratsaldeko lau terdietan. 447 kilometro inguru egin beharko dituzte. Helmugara, seiak inguruan helduko dira. B

Aerobic erakustaldia

Udal Kirol Zerbitzuak aerobic erakustaldia antolatuko du maiatzaren 24an. Nuria Rodrighez aerobic monitoreak eta bere ikasleak aerobic saioak eskainiko dituzte Udal Pilotalekuan. Eguerdiko hamabietan izango da eta musika erabiliz, hainbat modalitate landuko dituzte. Sarrera dohain izango da. B

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Pisu amueblatua salgai herri erdian. 76 06 64.

Pisua salgai Donostian. 76 31 79.

Barrenkalean apartamentua salgai. 76 56 41/76 04 69.

Pisu amueblatua salgai Martokon. Deitu 76 46 70 telefonora.

Pisu amueblatua salgai Antzuolan. Deitu 76 60 41 telefonora.

Pisua salgai Zabalotegi dorrean. 76 33 93.

Errentan hartzeko

Pisua hartuko nuke alokairuan. 76 47 50 (Jabi).

Errentan emateko

Pisua alokairuan Ikerleku Zan. Deitu 76 36 99 telefonora.

Pisua alokairuan Alcoceberren. 76 59 05.

Duplexa alokairuan. Zarautzen uztailen eta abuztuan. Deitu 83 56 36 telefonora.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zator Berrigarara edo deitu telefonoz, 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu

Garajea salgai Bolun. 76 47 99.

Garajea salgai Masterrekan. 78 36 65.

Garajea salgai Aranerrekan (2 plaza itxita). 76 06 96.

Garajea salgai Ibargarain. 76 57 93.

Garajea Torrekuan. 950.000 PTA. 76 19 72.

Garajea salgai Zurradeon. 76 02 89.

Errentan emateko

Garaje bikoitza alokairuan Torrekuan. Deitu 76 30 32 telefonora.

Garajea alokairuan Ibargarain. Deitu 76 16 38 telefonora.

Garajea alokairuan Aranerrekan. 76 46 54.

Garajea alokairuan Poligonoan. Deitu 76 32 58 telefonora.

Errentan hartzeko

Garajea/ganbara alokatuko genuke. 76 50 00.

Garajea alokatuko nuke. 76 05 17.

Burdiñate inguruan garajea errentan hartuko nuke. 76 70 63.

150m². 76 11 89.

Lokala salgai A. Fleming. 76 00 84/76 35 83.

Lokal komertziala salgai Martokon. 76 25 67.

Taberna bat salgai edo alokairuan Antzuolan. 76 60 16.

3. LOKALAK

Saldu

Lokala salgai edo alokairuan Masterrekan.

Errentan emateko

Bi pisuko lokala alokairuan San Pedron. 150 m². 76 11 64.

Lau gelako bulegoa

alokairuan Bolun (gaur edo gelaka). 76 58 91

Uberan 144 m²ko lokala alokairuan. Biltegi eta lantegi txiki batera egokia. 79 05 63.

San Lorentzoko industrialdean 200 m²ko lokala alokairuan. 76 35 09.

Santa Marinan 64 m²ko lokala alokairuan. 76 27 75.

4. LANA

Eskaintzak

Andre batek zaharra zaindu edo etxeko garbiketarako erabili lituzke. 76 00 90.

Neska batek asteberetarako erretan helduak zaindu eta etxeko lanak eginduko lituzke. 76 56 66.

Klinika auxiliar batean gaisoak edo helduak zaintzen ditu. 76 64 41.

Emakume batek astero kaera eta jaiagunetan zaharrak zaindu eta etxeko lanak eginduko lituzke. 76 50 46.

Neska batek orduko errenta egingo luke. Deitu 939 47 25 84 telefonora.


Carmen Garate
Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...
Bidekurutzeta 6 ☎ 76 13 23

GISASOLA BURDINAKI DENDA
"Erratzu"
San Pedro 8 Tf.: 76 27 70 BERGARA

LONBIDE
ONETAKOAK
Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 76 10 57



IBARGUREN PENTSUAK
BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak
San Pedro 3 Tf. 76 23 79



Haurrak zainduko nituzke. 76 04 34.

Ordenagailuz lanak pasatzen ditut. 76 38 71 (Larraitz).

Eskaerak

Dendari laguntzailea behar da. Bidali datuak 178 PKra.

Neska euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako. 76 04 56.

Emakumea behar da etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko. 76 31 11.

Pertsona euskalduna behar dut umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 76 24 33.

Esperientziadun tabernaria behar da. Deitu 76 47 23 telefonora.

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak

OHO klaseak Antzuolan. 78 71 32.

Ingeles klaseak ematen ditut. 76 53 88 (Rosa).

Mate, fisika eta kimika

klaseak ematen ditut LOGSE 2 arte. Deitu 76 24 31 telefonora.

Mate klaseak ematen ditut. 76 03 72 (Nerea).

Majisteritzako ikasle batek OHoko klaseak ematen ditu. 76 47 30 (Aitziber).

Fisika, informatika eta mate klaseak. Deitu 76 46 03 telefonora.

OHO eta BBB klaseak ematen dira. Deitu 76 33 26 telefonora.

Eskaerak

2. Batxilergo Teknikoko fisika klaseak hartuko nituzke. 76 39 15 (Jon).

2. DBHko mate klaseak hartuko nituzke. 76 13 11 (21:00etatik aurrera).

Ingeles klaseak hartuko genituzke. 76 50 54 (Iker).

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu

Golf TDI kotxea salgai. 76 64 70 (Mikel).

Citroen BX kotxea salgai. SS-U. 76 58 00.

Roller jet karabana salgai. 5 plaza. 76 44 05.

T.E.C. King karabana salgai. Lau plaza. 74 31 37.

Opel Corsa 1.200 salgai. 72.000 Km. 76 03 47 (gauez).

Peugeot 309 SR salgai. 100.000 Km. 76 14 64.

Erosi

Errepideko motorra (49 cc.) erosiko nuke. 76 39 19 (Aritz).

7. ANIMALIAK

Saldu

Hispaniel-breton txakurkumeak salgai. 907 93 72 71 (Pablo).

Setter txakurkumeak salgai. 76 53 92 (Javi).

Pit-bull txakurkumeak salgai. 79 37 17.

8. DENETARIK

Saldu

Snowboard taula berria salgai. 1,58 m., 57.000 pezeta. 76 25 03.

Neskaren jaunartze-soi-

nekoa salgai. 76 10 94.

Ziklismoko oinetakoak salgai. 76 01 31.

Soinua salgai. 76 56 65.

Super Nintendo kontsola salgai. 76 05 81.

Macintosh Centris 650 ordenagailua. Deitu 79 97 60 telefonora.

Mendiko bizikletak salgai. 76 49 39.

Idazmakina elektrikoa salgai. 76 10 63.

Kanpin denda familiarra salgai. 76 37 96.

Logela salgai: bi ohe txiki, muelle eta guzti. 76 57 05.

Kitarra elektrikoa eta anplifikadorea salgai. 76 34 31.

Erosi

Aspiradora bat erosi nahi dut. 76 04 86.

Akordeoa erosiko nuke. 76 57 03.

Galdu

Urrezko pultsera galdu dut. Sole izena eta 1934-9-29. 76 25 67.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

ETXE BARRUEN DEKORATZAILEA
Goierri. 6295/2

HARRERAGILEA, minusbaliatu fisikoa
Arabako Laut. 8002/2

TORNEROA
Azkoitia. 7612/2

INFORMATIKAN LIZENTZIATUA
Bidasa Behea. 6934/3

TORNERO MEKANIKOA
Donostia. 7842/1

ILEAPAINATZAILEA
Plentzia-Mungia. 7656/3

TELEMARKETING
Donostia. 8013/1

ILEAPAINATZAILEA
Bilbo. 7921/2

HIRU DIMENTSIOKO MAKINARAKO
Durangaldea. 8038/2

INFORMATIKA IRAKASLEA
Bilbo. 7953/3

SOLDATZAILE HOMOLOGATUA
Durangaldea. 7990/2

LURREN MUGIMENDURAKO MAKINARAKO
Arabako Laut. 7979/4

SOLDATZAILEA
Arabako Laut. 7878/3


MEKANIKO AJUSTATZAILEA
Bilbo (ALE). 8009/3

INJINERUA
Bilbo (ALE). 7876/1

Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraskozuri plaza 5 Tf. 76 41 50 BERGARA

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 76 09 32

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea ☎ 76 55 00



Matxiategi Elektragintza C.B.

ELEKTRIZITATE MATERIALEN SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Fleming 5 ☎ 76 19 94

Ibon Unamuno. Xamatz dantza taldeko kidea

"Aurten 800 lagun izango dira Euskal Jaian"


Maiatzaren 24an Haurren Euskal Jaia egingo da Bergaran. Xamatzeko eta Aranzadi Ikastolako dantza taldeek lanean dihardute, euskal jaiaren XXV. edizioa prestatzen. Guztira 800 bat lagunek hartuko dute parte Euskal Jaian. Ibon Unamuno, Xamatz dantza taldeko arduradunak, jaiaren nondik norakoak eman dizkigu.

G. Iaz arazoak izan zenituzten dantzariak etxeetan hartzeko jenderik ez zegoelako.

E. Bai, azken urteetan Aranzadi Ikastolako haurren gurasoei zabaldu zaie deia baina, aurten, herri guztira zabalduko dugu komunikabideen bitartez. Jende asko dago neska-mutikoak etxean hartuko lituzkeenak baina, jada, ikastolan haurrik ez dutenez, ez dute aukerarik izaten. Horregatik, aurten jendea animatu nahi dugu eta interesik edukiz gero, Aranzadi Ikastolara deitu edota Xamatzeko norbaitekin harremanetan jarri besterik ez daukate.

G. Aurten, gainera, iaz baino dantzari gehiago etorriko dira Bergarako Euskal Jaia.

E. Guztira, 14 talde izango dira Aranzadi Ikastolakoarekin batera: Gipuzkoako 11, Bizkaiko bi eta Nafarroako bat. Beraz, kanpotik 520 ume etorriko dira eta, arduradunak kontutan hartzen baditugu, 650 bat lagun etorriko dira. Hemengoekin, 800 bat lagun izango gara Euskal Jaian. Asmoa, 25 urte hauetan etorri diren talde guztiak elkar-tzea zen, baina aurrekontua 8 milioikoa zen eta ezinezkoa izan zaigu. 800.000 pezetako aurrekontua dauka jaiak eta Udalak ordainduko du.



Ibon Unamuno urteetan ari da Xamatzen.

G. Herriko elkarteek ere laguntzen dute.

E. Bai, normalean dantzariak etxetara banatzen ditugu eta arduradunok elkarteetan bazkaltzen dugu. Herriko hogeit bat elkartek emango digute laguntza.

G. Aranzadi Ikastolako dantza taldean zenbat dantzari daude?

E. Lau urtetik 15 urtera bitarteko 80 bat dantzari izango dira; 30 bat 4 urtekoak dira. Xamatzekoak ibiltzen gara haurrei erakusten.

Esan behar da, irail aldera edo jaiaren di bat antolatuko dugula Udal Pilotalekuan Aranzadi Ikastola eta Xamatz dantza taldeekin. Haurrak dira Xamatzen harrobia eta jendearengan ilusioa piztu nahi dugu, normalean, 13-14 urte betetzen dituztenean dantza egiteari le ga egiten diote eta, batez ere mutilek.

G. Jaialdiaz gain, zer daukazuete kuartean une honetan?

E. Eguakitz honetan Getxora, Ermora, goaz dantzan egitera. Iaz Gorbezen izan ginen eta Berriotxoaren dantza aurkeztu genuen. 10 urte ondoren Bizkaian aurkezten zen lehen zen eta oso gustora geratu ziren. Horregatik, Getxotik deitu ziguten Berriotxo eskainiko genuen galdezka eta bertara joango gara eguakitzean. Bestalde, maiatzaren 17an, bailarako dantzari eguna ospatuko dugu Sorraluzen. Flandeseko dantza taldearekin harremanetan eta bagabiltza elkarrekin zerbait egiteko eta, datorren urtean, Jacako nazioarteko folklore jaialdira joateko asmoa daukagu. Beste talde batzuekin harremanetan jartzeko ondo dago jaialdia eta iaztik gabiltza joateko asmoarekin.

G. Zenbat lagun zabiltzate Xamatz dantza taldean?

E. 17 neska eta 13 mutil; baina orain beste 4 mutil daude sartzeko horietatik hiru, lehen Aranzadi Ikastolako taldean ibilitakoak. Horretaz gain 12 bat musiko-edo izango dira. Dena 50 bat lagun. B

"Herriarrek haurrak etxean hartu nahi badituzte, gurekin harremanetan jartzeko"



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerrika 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 76 10 65. Faxa: 76 11 40.

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12 ☎ 76 03 57

Panpinak ikusgai Kultur Etxean

Mikel eta Estefaniaren omenezko erakusketa

Helduentzako Txotxongiloen Nazioarteko IV. Mostra joan zaigu eta antolatzaileak, Taun-Taun kolektiboa, nekatuta baina,aldi berean, oso gustora geratu dira izandako erantzunarekin.

Goi mailako ikuskizunak izan ditugu, antzokiak jendez gainezka egon dira eta titiriteroek jaialdian izan den giroarekin gozatu egin dute. Taun-Taunekoak, eta jaialdia aurrera ateratzeko lanean jardun duten guztiek, egindako lanak merezi izan duela aitortu dute eta aurtengo edizioa bukatu berri bada ere, hemendik bi urtera berriz ere antolatzeko animatuta daude.

Txotxongilo taldeak joan badira ere, Mikel Diez eta Estefania Erroren omenez Kultur Etxean antolatutako erakusketa domekara arte izango da zabalik. Erakusketak ikusmin handia

sortarazi du gaztetxoaren artean ez ezik - ikastetxeetako neska-mutikoentzat bisita gidatuak antolatu dira- helduen artean ere.

Mikelek eta Estefaniak panpinen animazioaren munduan egindako bidea jaso nahi izan dute Taun-Taunekoek erakusketa honetan: Leioako Unibertsitatean Arte Ederretan lizentziatu zirenetik Euskal Herriko txotxongiloen lehen areto egonkorra sortu artekoa eta Kilimiliklik txotxongilo taldea sortu artekoa.

Besteak beste, honako hauek ikus daitezke erakusketan: Txotxongiloen burua egiteko prozedura eta materialak; hainbat bozeto; Kukubiltxo taldearen "Jalgi hadi dantzara" eta "Malintxe" ikuskizunetarako egindako txotxongiloak, Frantziako Charleville-Mezieresko Nazioarteko Txotxongilo Institutuan sortutako panpinak eta jaialdi horren

ondoren, manipulazio tekniken inguruan egindako ikerketa-lanak: bunnaku, hariak eta itzalak; ETBko "Txokolatex" telesailerako egindako pertsonaiak eta Antena 3 telebista kateetarako egindako enkarguak.

Erakusketa ikus-terera taldeka joanez gero, Iñaki Matak, Taun-Tauneko kideak, erakusketari buruzko azalpenak ematen ditu. **B**



Erakusketan "Txokolatex" telesaioko panpinak ere ikus daitezke.



Xabier Montoia
Plastikozko loreak erregearentzat
Narratiba

"Eliza katolikoaz gain, badago beste sekta bat munduko zoko guztietara zabaldu dena. Ez dihardut Jehovaren lekukoez, ezta protestantez edo musulmanez ere. Elvisen elizaz baino". Horrela hasten da Xabier Montoia zazpigarren liburua. Ford zahar batean, Nashvilletik barrena, Memphisera abiatu da Montoia. Eta Elvisekin topo egin du errepideetan, tabernetan, dendetan, gasolindegietan, alde guztietan. Faktoria erraldoi bat da Elvis eta bere ondarea. Musikazalearentzat ordea, Memphis ez da soilik Elvis. Bidaia honen bitartez country, blues eta soul garai mingarrietara gidatuko zaitu idazleak...

- Susa. 105 orr. 1.500 PTA



Arakajun
Arakajun
Folk-country

Ipar-ameriketan urte bila ibiltzen zireneko garaietara itzuli gara; bourbon botilak barra-barra dabilta eta alkoholaz blai eginda ditugu burmuinak. Banjoa, bibolina eta soina astintzen ari dira musikariak eta, jendea, dantzan eta saltoka. Zarautzeko Arakajun taldeak, rock and rollaren aurreko ipar-amerikako folklore tradizionalaren ildotik jo du estraineko diskoan. Erritmo alaiak eta parrandara animatzen dituzten hitzak. Soina ez da bikaina, baina tira...

- Gaztelupeko hotzak. 1.700 PTA

IGARO


- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkala 35 Tf.: 76 17 27

DENBORALDIAREN HASIERA

Apirilaren 30ean, eguena,
OILASKO FESTA

Entsalada mistoa • Oilaskoa
Edaria (sagardoa, ardoa edo garagardoa)
Etxeko postrea • Kafea • 1.200 PTA.



Zatoz eta gozatu!

Eta eguakitz,
zapatu eta
domeketan
aukera aparta
ERREKI
BEREZIETAN!

San Juan auzoa, Elgetako bidea, Bergara. Tf. 76 35 51.

Enkarguak hartzen dira

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Marinel. 2. Zurea. Emakume izena. 3. Esku itxia. Britainia Haundia. 4. Modu atzizkia. Kimatua. 5. Bihia. Asiako estatua. 6. Joan den urtean. Ibai baten bokalean gertatzen diren hondar-pilatzeak. 7. Tona. Moztu. Hektarea. 8. Metal preziatu. Edade. 9. Gabarra. Har ezan! Zenbaki bakoiti bat. 10. Eragiketa aritmetikoa. Erreplikatz, txori-mota.


Goitik behera

1. Ausartak. 2. Edari alkoholoduna. Bilo. 3. Garra. Bizkaieraz, inola. 4. Ugaztun-mota. Baldintzetan. Potasioa. 5. Bizkaieraz, haur. Barrunbe. 6. Gazte ederrak. Ogi, hitz elkarketan. 7. Bat. Hondakina. Bokala. 8. Azkenekoa eta lehenengoa. Sartu aditzaren infinitiboa. Bi kontsonante. 9. Pl. besteengana borondate ona. 10. Anaia. Abesti.

Soluzioa

10. Naba. Kantu. 10. Kenketa. Ku. 9. Ala. Nol. Bat. 9. Ebatz. Ha. 8. Zilar. Adin. 6. Aza. Iran. 6. Iaz. Barrak. 4. Ki. Inausia. 2. Zurea. Ana. Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

Bergarako zein auzunetan aurki ditzakegu pieza hauek?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Ortzi** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Jabier Igarzarentzat** izan da. Leku-Berri merenderoan bi lagunendako afaria. Zorionak Jabierri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Zubiarte**. Galde Debalde: **1-A, 2-C, 3-C**.

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izena-deitura: Telefonoa:

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

Ortzi
jatetxea

Angiozar auzoa
Telefonoa: 76 22 68

Kirolzale amorratua, 46 urteko arrasatear honek 24 urte daramatza gure artean butanoa partitzen. Iaz beteranoei zuzendutako 43 lasterketa irabazi zituen eta bere emazteak eta bi semeek ere kirol trofeo ugari eskuratu dituzte.

Jose Galan

Zergatik butanero?

Fagorren mekaniko aritu ondoren, soldaduska ostean hori suertatu zitzaidan.

Zenbat pisatzen du bonbona batek?

25 kilo.

Egunean, zenbat banatzen dituzu?

210-250 bitartean normalean.

Gorputzak asko sufritzen du?

Bai, bizkarrean eta belaunetan batez ere.

Zure lanerako sasoitsu egon behar...

Kirol piloa egiten dut.

Butanoak indarra galdu du?

Gasa sartu denetik asko, %50 inguru.

Etxean butanozko sukaldea?

Gas propanozkoa daukat. Ez dugu bonbona txikirik erabiltzen.

Laneko gauzarik onena?

Ez dago ezer onik...

Zer deritzozu 35 orduko lan asteari?

Ondo, berdin pagatzen badute...

Langileen eguna ospatzen duzu?

Ez.

Txikitan zer izan nahi zenuen?

Txirindularia. Orain Fagor jubenil taldea zuzentzen dut.

Txirindularirik gustokoena?

Gaztetan, Ocaña.

Zer da besteengan gehien

apreziatzen duzuna?

Apaltasuna.

Umore onekoa ala txarrekoa zara?

Erregularrekoa.

Etxeko lanetan laguntzen duzu?

Batere ez.

Hobby bat?

Mekanika, bizikletak konpontzea.

Mania bat?

Ogi sikua jatea eta fruta zuritzea.

Dietarik egiten duzu?

Ez, denetik jaten dut, baina beti ordu berean eta kantitate bera.

Gustoko janari bat?

Gazpatxo.

Zenbat ordu entrenatzen duzu?

Egunean hiruzpalau ordu.

Zenbat kilometro korrika?

600 bat hilean.

Eta lo, zenbat ordu?

10 inguru.

Gustoko proba bat?

San Juanetan Hernanin kirolaririk konpletoena aukeratzeko egiten dena. 9 aldiz irabazi dut.

Zenbat trofeo dituzue etxean?

800 inguru.

Zeinek lortzen ditu gehien?

Azkenaldian emazteak.

Korrika proba asko irabazi ditu.

Amets bat?

Semeetako bat txirindulari profesionala izatea.



LAGUN ARO

ASEGURUAK



AGENTEA-DELEGATUA

Iraegi Aseguruak

Ramon Maria Lili 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxes: 76 41 54

ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00

Larunbatetan: 9.00-13.00

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6 Tf. 76 56 62

IKUSBI

**ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK**

Irala 5 ☎ 76 53 09



*Gozogintzan
aintzindari.*



1946ko kintoak

Garai batean adin batetik aurrerakoek bakarrik ospatzen zituzten kintadak. Soldaduska ostean, urte-batzuetara, promozio berekoak bildu eta bazkari edo afaria egiten zuten, gizonezkoek bakarrik.

Gaur egun ohitura hori ia guztiz galdu eta urte berdinean jaiotako gizon eta emakumeak izaten dira biltzen direnak, gero eta belaunaldi gazteagokoak gainera. Lagunekin elkartu eta parranda egiteko edozein aitzaki da hona...

Argazkia 1946ko kintoena da, 1971eko uztailean ateratakoa. Marcial Moreno "La Voz de España" egunkariko orduko berriemakelak lagatako argazkia da. Lasanean bazkaldu aurretik, Mariaren Lagundiko edifizio berriaren aurrealdean atera zien argazkia. Zoritzarrez, ezin izan

ditugu bertan agertzen diren guztiak identifikatu. Barkatuko diguzue.

Goian: Jose Makazaga, Donato Igarza, Eusebio Aizpurua, Mariano Losada, ezezaguna, Jose Angel Larrañaga, Jose Antonio Imaz, Markos Larrañaga, Larrañaga "Ormazabal", Felipe Telleria eta Don Nikomedes Larrañaga.

Erdian: Antonio Uribetxeberria, Eugenio Osa, ezezaguna, Eugenio Beain, Antonio Etxebarria, roiribe, Martin Agirrezabal, ezezaguna, ezezaguna eta Pascual Azkarate.

Aurrean: Felipe Unamuno, Enrike Muguruza, ezezaguna, Markos Elgoro, Patxi Azkarate, Juanito Alberdi, Juan Iturbe, ezezaguna eta...

Argazkia: Marcial Moreno

Gaskide, S.L.

ITURGINTZA OROKORRA
GASA ETA KALEFAKZIOA

☎ 76 49 00

HELBIDE BERRIA:
Aritzetako San Migel 8-10
BERGARA



zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 76 20 21



MEMESA



INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

MAYA



amaya arzuaga
Fabricado por Elipaz



Bergara. Tf. 76 09 75

EZ DAGO KONPARAZIORIK




OMU
KERAMIKAK



Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka 6 • Tf./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE
Erakusketa: Otalora 1, behea • Tf. 943 79 07 20 • ARRASATE

ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK